The error terms in both HAR models,  $a_t$ , are analyzed in order to determine whether GARCH structures are appropriate for our data. Based on the Ljung-Box statistic, they are justified for the standard deviation transformation. By contrast, the logarithmic transformation of RV provides an unconditional distribution closer to the Gaussian and GARCH models are not justified for modeling the volatility of RV.<sup>10</sup> Out of the various GARCH models analyzed in the literature, two different models are specified in this chapter for the error term  $a_t = \sigma_t \epsilon_t$ , where  $\epsilon_t$  are *iid* random standard normal distributed variables. The first is the GARCH(1,1) model, which in general accounts for the volatility clusters and the main features of the distribution of the innovations. Unlike Corsi et al. (2008), GARCH(1,1) structure is considered here for the errors of both the HAR-RV and the HAR-CV-JV models. The second is Nelson (1991) EGARCH(1,1) model, where asymmetric effects are considered. This structure is widely used in the relevant literature because the incorporation of the leverage effect reduces the skewness in the distribution of the errors and the model fits the characteristics of the data. In particular, Chan et al. (2008) model daily volatility of price changes using EGARCH(1,1), but it is not included in the error terms of the HAR model.

The GARCH(1,1) is given by:

$$\sigma_t^2 = \alpha_0 + \alpha_1 a_{t-1}^2 + \alpha_2 \sigma_{t-1}^2,$$

where  $\alpha_0 > 0$ ,  $\alpha_1 \geq 0$ ,  $\alpha_2 \geq 0$  and  $\alpha_1 + \alpha_2 < 1$  ensure that the variance is positive and the process is stationary.

The asymmetric EGARCH(1,1) is given by:

<sup>10</sup>The Ljung-Box test shows evidence of uncorrelated  $a_t$  and  $a_t^2$  series for the logarithmic transformation, while there is evidence of uncorrelated errors but correlated squared errors for the standard deviation transformation. Results are available upon request.

$$\log \sigma_t^2 = \delta_0 + \delta_1 \frac{|a_{t-1}|}{\sigma_{t-1}} + \delta_2 \log \sigma_{t-1}^2 + \delta_3 \frac{a_{t-1}}{\sigma_{t-1}},$$

where the coefficients are not required to be positive, since even if  $\log \sigma_t^2 < 0$ , the volatility will always be positive. The asymmetric response of the volatility due to shocks of different signs is captured by  $\delta_3$ . A positive (negative) coefficient implies an inverse (direct) leverage effect.

The resulting models are called HAR-GARCH-RV, HAR-EGARCH-RV, HAR-GARCH-CV-JV and HAR-EGARCH-CV-JV and are estimated by maximum likelihood.

Tables 1.6 and 1.7 show the estimation results for the models considering total RV and decomposition of RV for each jump test considered. The estimated coefficients of GARCH(1,1) ensure that the variance is positive and the time series is stationary. The estimated coefficients of the HAR-EGARCH models show evidence of an inverse leverage effect, meaning that positive shocks have more effect on RV than negative shocks. In general, the magnitude and significance of the coefficients estimated are similar between the models with GARCH and EGARCH innovations although some differences appear in the estimated effect of the JV component depending on the jump test. In terms of log-likelihood the HAR-EGARCH is preferred for both total RV and its decomposition. This means that the leverage effect is important in modeling the standard deviation of RV.

Table 1.6: HAR-GARCH-RV and HAR-EGARCH-RV models estimation results ( $\sqrt{RV}$ )

HAR-GARCH-RV			HAR-EGARCH-RV		
Intercept	$\hat{\beta}_0$	14.42 <sup>a</sup>	Intercept	$\hat{\beta}_0$	15.91 <sup>a</sup>
$RV_{t-1}$	$\hat{\beta}_1$	0.45 <sup>a</sup>	$RV_{t-1}$	$\hat{\beta}_1$	0.48 <sup>a</sup>
$RV_{w,t-1}$	$\hat{\beta}_2$	0.19 <sup>a</sup>	$RV_{w,t-1}$	$\hat{\beta}_2$	0.16 <sup>a</sup>
$RV_{m,t-1}$	$\hat{\beta}_3$	0.20 <sup>a</sup>	$RV_{m,t-1}$	$\hat{\beta}_3$	0.19 <sup>a</sup>
Intercept	$\hat{\alpha}_0$	41.67 <sup>a</sup>	Intercept	$\hat{\delta}_0$	0.21 <sup>a</sup>
$a_{t-1}^2$	$\hat{\alpha}_1$	0.09 <sup>a</sup>	$ a_{t-1} /\sigma_{t-1}$	$\hat{\delta}_1$	0.07 <sup>a</sup>
$\sigma_{t-1}^2$	$\hat{\alpha}_2$	0.88 <sup>a</sup>	$\log \sigma_{t-1}^2$	$\hat{\delta}_2$	0.96 <sup>a</sup>
			$a_{t-1}/\sigma_{t-1}$	$\hat{\delta}_3$	0.14 <sup>a</sup>
Log-likelihood		-5961.84	Log-likelihood		-5936.62

*a* denotes significance at the 1% level.

The standardised error terms and their squares follow a white noise process in all four models.<sup>11</sup> Therefore, the GARCH(1,1) and EGARCH(1,1) correctly fit the data working with the standardised deviation form of RV.

## 1.5 Forecast

The predictive power of the different models is measured using various out-of-sample criteria. To that end, observations from November 18, 2012 to December 31, 2015, covering 1109 days, are considered as in-sample data, while observations in 2016, covering 121 days, are considered

<sup>11</sup>The Ljung-Box test is applied to the standardised error terms and their squares. Results are available upon request.

Table 1.7: HAR-GARCH-CV-JV and HAR-EGARCH-CV-JV models estimation results ( $\sqrt{RV}$ )

HAR-GARCH-CV-JV					HAR-EGARCH-CV-JV				
		BNS	CPR	ADS		BNS	CPR	ADS	
Intercept	$\hat{\lambda}_0$	19.24 <sup>a</sup>	22.91 <sup>a</sup>	14.22 <sup>a</sup>	Intercept	$\hat{\lambda}_0$	18.13 <sup>a</sup>	19.10 <sup>a</sup>	14.55 <sup>a</sup>
$CV_{t-1}$	$\hat{\lambda}_1$	0.43 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.44 <sup>a</sup>	$CV_{t-1}$	$\hat{\lambda}_1$	0.47 <sup>a</sup>	0.48 <sup>a</sup>	0.48 <sup>a</sup>
$CV_{w,t-1}$	$\hat{\lambda}_2$	0.16 <sup>a</sup>	0.13 <sup>b</sup>	0.20 <sup>a</sup>	$CV_{w,t-1}$	$\hat{\lambda}_2$	0.13 <sup>a</sup>	0.16 <sup>a</sup>	0.15 <sup>a</sup>
$CV_{m,t-1}$	$\hat{\lambda}_3$	0.16 <sup>a</sup>	0.09	0.20 <sup>a</sup>	$CV_{m,t-1}$	$\hat{\lambda}_3$	0.19 <sup>a</sup>	0.08	0.21 <sup>a</sup>
$JV_{t-1}$	$\hat{\theta}_1$	0.20 <sup>a</sup>	0.21 <sup>a</sup>	0.47 <sup>a</sup>	$JV_{t-1}$	$\hat{\theta}_1$	0.22 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.44 <sup>b</sup>
$JV_{w,t-1}$	$\hat{\theta}_2$	0.18 <sup>a</sup>	0.14 <sup>b</sup>	-0.26	$JV_{w,t-1}$	$\hat{\theta}_2$	0.07	0.03	-0.26
$JV_{m,t-1}$	$\hat{\theta}_3$	0.07	0.19 <sup>b</sup>	0.17	$JV_{m,t-1}$	$\hat{\theta}_3$	0.08	0.22 <sup>a</sup>	0.38 <sup>b</sup>
Intercept	$\hat{\alpha}_0$	61.54 <sup>a</sup>	54.08 <sup>a</sup>	44.08 <sup>a</sup>	Intercept	$\hat{\delta}_0$	0.21 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>b</sup>
$a_{t-1}^2$	$\hat{\alpha}_1$	0.13 <sup>a</sup>	0.10 <sup>a</sup>	0.09 <sup>a</sup>	$ a_{t-1} /\sigma_{t-1}$	$\hat{\delta}_1$	0.08 <sup>a</sup>	0.06 <sup>a</sup>	0.05 <sup>a</sup>
$\sigma_{t-1}^2$	$\hat{\alpha}_2$	0.83 <sup>a</sup>	0.85 <sup>a</sup>	0.87 <sup>a</sup>	$\log \sigma_{t-1}^2$	$\hat{\delta}_2$	0.96 <sup>a</sup>	0.97 <sup>a</sup>	0.97 <sup>a</sup>
					$a_{t-1}/\sigma_{t-1}$	$\hat{\delta}_3$	0.13 <sup>a</sup>	0.13 <sup>a</sup>	0.14 <sup>a</sup>
Log-likelihood		-5954.98	-5956.23	-5959.46	Log-likelihood		-5934.41	-5934.07	-5933.14

*a* and *b* denote significance at the 1% and 5% levels, respectively.

as out-of-sample data. The forecasts for 2016 are obtained from a recursive estimation of the models starting with the first 1109 observations and expanding the estimation period by adding one new observation each time. Comparisons between observed and predicted values are made using MAE (mean absolute error), RMSE (root mean square error) and MAPE (mean absolute percentage error) criteria<sup>12</sup>:

$$MAE = \frac{1}{N} \sum_{t=1}^N |RV_t - \widehat{RV}_t|$$

$$RMSE = \sqrt{\frac{1}{N} \sum_{t=1}^N (RV_t - \widehat{RV}_t)^2}$$

$$MAPE = \frac{1}{N} \sum_{t=1}^N \frac{|RV_t - \widehat{RV}_t|}{RV_t},$$

where  $N$  is the number of forecast observations and  $\widehat{RV}_t$  is the predicted value of  $RV$  using the models described in Section 1.4.

Table 1.8 reports the results of the MAE, RMSE and MAPE criteria for both transformations of  $RV$  and each jump test. For both transformations, models that decompose  $RV$  into  $JV$  and  $CV$  components clearly provide better forecasts than those using total  $RV$ . For the standard deviation form, the selection of the best model depends on the jump test. Specifically, the HAR-GARCH-CV-JV model consistently outperforms the other models in terms of forecasting ability for all three criteria under the BNS jump test, followed by the HAR-CV-JV model. By contrast, GARCH structures do not improve forecasts under CPR and Med tests, which select

<sup>12</sup>The best model in terms of prediction is the one with the lowest value of any criterion implying that the forecast error is the smallest.



the HAR-CV-JV model. Contrary to the results of the in-sample forecast, there is no gain in adding EGARCH innovations in terms of out-of-sample forecast performance. In the logarithmic transformation, the use of GARCH structures is not justified, so forecasting ability is assessed in the HAR-RV and the HAR-CV-JV models. All three criteria show higher predictive power for the HAR-CV-JV model; specifically, the best results are obtained using BNS jump detection.

Table 1.8: MAE, RMSE and MAPE criteria.

$\sqrt{RV}$	MAE	RMSE	MAPE
HAR-RV	15.0767	19.5739	0.1784
HAR-CV-JV (BNS)	14.7714	19.2089	0.1752
HAR-CV-JV (CPR)	14.8110	19.4492	0.1756
HAR-CV-JV (ADS)	15.0610	19.3712	0.1785
HAR-GARCH-RV	15.0827	19.5883	0.1780
HAR-GARCH-CV-JV (BNS)	<b>14.6218</b>	<b>19.0844</b>	<b>0.1733</b>
HAR-GARCH-CV-JV (CPR)	14.8349	19.5145	0.1757
HAR-GARCH-CV-JV (ADS)	15.1113	19.4293	0.1785
HAR-EGARCH-RV	15.2375	19.8298	0.1814
HAR-EGARCH-CV-JV (BNS)	15.0213	19.5349	0.1789
HAR-EGARCH-CV-JV (CPR)	14.9806	19.4672	0.1761
HAR-EGARCH-CV-JV (ADS)	15.2884	19.6601	0.1820
$\log RV$	MAE	RMSE	MAPE
HAR-RV	0.3382	0.4189	0.0381
HAR-CV-JV (BNS)	<b>0.3330</b>	<b>0.4127</b>	<b>0.0375</b>
HAR-CV-JV (CPR)	0.3351	0.4179	0.0377
HAR-CV-JV (ADS)	0.3370	0.4159	0.0380

Numbers in bold show the lowest value for each criterion and RV transformation.

As shown, in both transformations the models obtained using the BNS jump test provide more accurate forecasts than the corresponding models using the CPR and ADS tests. This could be due to the fact that the CPR test is too greatly affected by zero returns and detects too many jumps, whereas MedRV is upward biased, so too few jumps are detected with the ADS test.



The criteria used are calculated for the forecast errors of the whole out-of-sample period, but it is also possible to assess the behaviour of errors during that period by computing a rolling ratio of any of the criteria as the ratio of the criterion value for each model and that of the benchmark (HAR-RV) for a moving window of 30 forecasts. A ratio greater than one means that the predictive power of the HAR-RV model is better than that of the other model with which it is compared.

Figures 1.1 and 1.2 show the rolling RMSE ratio for the logarithmic and square root transformations of RV, respectively, for the BNS jump test<sup>13</sup>. The former shows that, according to the RMSE criterion, the HAR-CV-JV model in its logarithmic form outperforms the HAR-RV

<sup>13</sup>Rolling ratios when using the CPR and the ADS jump tests have also been calculated. The former provides a pattern similar to that found when using the BNS test while the latter moves around the value of one due to the poor performance in the jump detection. There are no significant differences when rolling ratios for MAE and MAPE criteria are considered. Results are available upon request.

model throughout the forecast period, except in a few observations at the beginning and end of the period. In the case of the standard deviation form, the HAR-CV-JV model is preferred to the HAR-RV model throughout the forecast period. The predictive power of the HAR-GARCH-CV-JV model is higher than that of the benchmark in most of the period, especially at the beginning and end. This result is in line with the selection of the HAR-GACH-CV-JV model according to the forecast criteria (see Table 1.8). It is important to underline that the forecasting accuracy of the HAR-GARCH-RV and the HAR-EGARCH-RV models is lower than that of the HAR-RV model in the whole sample. This fact indicates that forecasts are not improved by including GARCH structures when total RV is considered.

Figure 1.1: Rolling RMSE ratio (log RV)

Figure 1.2: Rolling RMSE ratio ( $\sqrt{RV}$ )

Haugom et al. (2011) also find that the forecast accuracy is improved when jumps are considered for the Nord Pool forward electricity market and Chan et al. (2008) show a slight improvement in volatility forecasts for the NEMMCO decomposing the total RV.

The approach of Andersen et al. (2003) is also applied to compare the forecasting performance of different pairs of models. This is an out-of-sample approach based on the regression of the observed RV on the estimated value of RV for the two models to be compared. In the case of the logarithmic transformation of RV there are only two models to be compared: HAR-RV and HAR-CV-JV. For the standard deviation form six different models for each jump test are compared in pairs. However, no conclusive results are obtained<sup>14</sup>.

## 1.6 Conclusions

The formation of electricity prices has become more complex with the liberalisation of the market. Balancing markets have proved useful in managing real demand and have become more sophisticated as agents have learnt how to trade optimally in this new environment. Thus, there is growing interest in forecasting volatility in electricity prices in these close-to-real-time delivery markets.

In this chapter, we take realized volatility as a measure of the unobserved volatility process of high-frequency data such as the continuous intraday market for 15-minute contracts in Germany and Austria. The variation in electricity prices is decomposed into continuous and jump components using three different jump tests. This approach enables us to analyze and compare the forecasting performances of two different models: one for total realized volatility and the other with the aforementioned decomposition. Furthermore, GARCH structures are included in the error terms of the models whenever appropriate. The estimation and forecasting power are analyzed for the square root and logarithmic transformations of realized volatility.

Out-of-sample forecast criteria support the HAR-CV-JV model for the logarithmic transformation under all three jump tests and for the standardised RV under the CPR and ADS jump tests, while the HAR-GARCH-CV-JV model improves the accuracy of volatility forecasting under the BNS jump test and the standard deviation form. A comparison of the different jump tests reveals that models using the BNS provide the best results in terms of forecasting ability. These results highlight several conclusions: first, under both transformations the decomposition of total realized volatility is important for forecasting purposes. Second, the choice of the transformation is also important because more complex models including GARCH innovations might be selected for the standardised RV, while the distribution of the innovations in the logarithmic transformation is closer to the normal and simpler models would suffice. Moreover, although EGARCH innovations outperform GARCH innovations in terms of explanatory power in estimation, they are not selected in terms of forecast accuracy. Three, results differ with the jump test used at least in the standardised form of RV, probably due to the use of adjacent returns and the presence of zero returns which affect the properties of the estimators.

---

<sup>14</sup>Results are available from the authors upon request.

The forecast results obtained are of interest to participants in the German-Austrian continuous market as they can fit their spot positions close to delivery. Moreover, they are also of interest to participants in the futures market. Electricity markets around the world are encouraging market agents to participate in futures markets and the decision whether to do so is taken through risk evaluation. For instance, in the EPEX intraday continuous market since June 28, 2015 there have been cap-futures, which are futures bounded at 60 €/MWH. On the one hand, they allow renewable energy generators to shield themselves from losses when actual generation is less than forecast. On the other hand, thermal energy generators can sell the futures and obtain a payment as backup power without further state compensation. Hence, volatility forecasting helps agents to manage risk and decide whether or not to participate in the futures market; it also helps the market to offer adequate futures and derivatives to incentivise agents to participate in futures markets.

## 1.7 Bibliography

- Andersen, T. G., Bollerslev, T., & Diebold, F. X. (2007). Roughing it up: Including jump components in the measurement, modeling, and forecasting of return volatility. *The review of economics and statistics*, 89(4):701–720.
- Andersen, T. G., Bollerslev, T., Diebold, F. X., & Labys, P. (2003). Modeling and forecasting realized volatility. *Econometrica*, 71(2):579–625.
- Andersen, T. G., Dobrev, D., & Schaumburg, E. (2012). Jump-robust volatility estimation using nearest neighbor truncation. *Journal of Econometrics*, 169(1):75–93.
- Barndorff-Nielsen, O. E. & Shephard, N. (2004). Power and bipower variation with stochastic volatility and jumps. *Journal of financial econometrics*, 2(1):1–37.
- Barndorff-Nielsen, O. E. & Shephard, N. (2006). Econometrics of testing for jumps in financial economics using bipower variation. *Journal of financial Econometrics*, 4(1):1–30.
- Chan, K. F., Gray, P., & van Campen, B. (2008). A new approach to characterizing and forecasting electricity price volatility. *International Journal of Forecasting*, 24(4):728–743.
- Corsi, F. (2009). A simple approximate long-memory model of realized volatility. *Journal of Financial Econometrics*, 7(2):174–196.
- Corsi, F., Mittnik, S., Pigorsch, C., & Pigorsch, U. (2008). The volatility of realized volatility. *Econometric Reviews*, 27(1-3):46–78.
- Corsi, F., Pirino, D., & Reno, R. (2010). Threshold bipower variation and the impact of jumps on volatility forecasting. *Journal of Econometrics*, 159(2):276–288.
- Frömmel, M., Han, X., & Kratochvil, S. (2014). Modeling the daily electricity price volatility with realized measures. *Energy Economics*, 44:492–502.

- Haugom, E. & Ullrich, C. J. (2012). Forecasting spot price volatility using the short-term forward curve. *Energy Economics*, 34(6):1826–1833.
- Haugom, E., Westgaard, S., Solibakke, P. B., & Lien, G. (2011). Realized volatility and the influence of market measures on predictability: Analysis of Nord Pool forward electricity data. *Energy Economics*, 33(6):1206–1215.
- Huang, X. & Tauchen, G. (2005). The relative contribution of jumps to total price variance. *Journal of financial econometrics*, 3(4):456–499.
- Müller, U. A., Dacorogna, M. M., Olsen, R. B., Pictet, O. V., Schwarz, M., & Morgeneegg, C. (1990). Statistical study of foreign exchange rates, empirical evidence of a price change scaling law, and intraday analysis. *Journal of Banking & Finance*, 14(6):1189–1208.
- Nelson, D. B. (1991). Conditional heteroskedasticity in asset returns: A new approach. *Econometrica: Journal of the Econometric Society*, pages 347–370.
- Ullrich, C. J. (2012). Realized volatility and price spikes in electricity markets: The importance of observation frequency. *Energy Economics*, 34(6):1809–1818.

# 2

## Gauzatutako bolatilitatea eta jauzi-testak Japoniako eguneko argindar merkatuan.

### 2.1 Sarrera

Duela bi hamarkada, mundu osoko argindar sektorea bertikalki integratutako industria gisa antolatuta zegoen. Bertan, prezioak zerbitzu kostuen arabera erregulatzen ziren<sup>1</sup>. Egoera horretan, prezioak urtean behin aldatzen ziren. Liberalizazioak eta lehiaren sustapenak elektrizitatearen merkatuko antolatzaileak ekoizpena (eskaintza) eta eskaria sarriago orekatzera bultzatu zituen. Prezioak aurrez finkatutako denbora tarte batean zehazten diren merkatu bateratu bat sortu zen<sup>2</sup>. Prezioak sarriago ezartzearen helburua, elektrizitatearen eskarian eta eskaintzan dauden aldaketak erakustea da, tarifa finkoetan ikusi ezin diren aldaketak (epe laburreko eraginkortasuna). Honela, inbertitzaileei seinale fidagarriak emanez, industriaren likidezia handitzea (epe luzerako eraginkortasuna) lortzen da.

Energia elektrikoa ezin da gorde (gutxienez ez eskala handian) eta eskariaren menpe eskuragarri egon behar du uneoro. Gainera, eskaria eta eskaintza etengabe aldatzen dira. Ezaugarri fisiko horiei aurre egiteko argindar merkatuaren diseinua konplexua da, eta konplexutasun horrek prezioetan arriskua dakar. Prezio arriskua merkatuaren egituraren arabera da. Adibidez, ekoizpenaren aldetik, oinarritzko kargaren (energia nuklearra,

---

Artikulu honako aldizkarian onartua: *Realized Volatility and Jump Testing the Japanese Electricity Spot Market. Empirical Economics, 2018. DOI:10.1007/s00181-018-1577-6.*

<sup>1</sup>Zerbitzu kostuen erregulazioan, erregulatzaileak, kostuak berreskuratzeko eta inbertsioaren zentzuzko irabaziak bermatzeko, diru-bilketa bidez erabilgarritasunagatik tasa bitartez jaso beharreko irabazi guztia zehazten zuen. Baliabideen urritasunaren ondorioz ez zegoen seinalerik.

<sup>2</sup>Denbora tarte bakoitzerako, merkatuko prezioa hornitzaileen salmenta eskaintzak eta erosleen eskaintzak bat datozenean zehazten da. Australian eta Japonian prezio horiek ordu erdiro ezartzen dira eta Frantzia, Alemanian, Italian eta Espainian, aldiz, orduro.

erregai fosilak eta energia hidroelektrikoa) ahalmena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta sentiberatasun txikiagoa izango du merkatuak eskariaren aldaketekiko. Aitzitik, iturri berriztagarrietatik datorren energia zenbat eta oparagoa izan, orduan eta babesgabeago egongo da merkatua eskarian duden aldaketekiko. Nolanahi ere, eskari-eskaintzaren oreka estua dela eta, aldaketa txiekiek prezioan eragin handiak izan ditzakete. Argindar merkatuetan prezioek jasaten dituzten aldagarritasun altuek eta jauziek, parte-hartzaileak merkatuko ziurgabetasunetatik babesten dituzten finantza tresnak garatzea eragin dute. Energia hornitzaileek eta saltzaileek beren zorroak kudeatu behar dituzte ingurune ezegonkor honetan, beraz, funtsezkoa da bolatilitatea aurreikusteko gai izatea. Aurreikusteko beharrari erreparatu, argindar merkatuak liberalizatzeko prozesuekin batera, elektrizitatearen deribatuen merkatuak garatu dira (Cramton, 2017), eta Japonia ez da salbuespena izan, etorkizuneko merkatuetako parte-hartzea gero eta handiagoa baita.

Maiztasun altuko prezioen datuei esker bolatilitatea estimatzeko metodo ez-parametrikoak garatu ahal izan dira, horretarako neurri gauzatuak erabiliz. Bolatilitate gauzatu egun-arteko errentagarritasun karratuen batura gisa kalkulatu ohi da. Barndorff-Nielsen eta Shephard (2004)-ek aldagarritasun osoa nola deskonposatu ikertzen dute aldagarritasun jarraitu eta jauzietan. Artikulu honen argitalpenetik aurrera deskonposizio honen inguruko literatura azkar hazi zen, Barndorff-Nielsen eta Shephard (2006) (BNS), Andersen et al. (2007a) (ABD), Lee eta Mykland (2007) (LM), Jiang eta Oomen (2008) (JO), Corsi et al. (2010) (CPR), eta Andersen et al. (2012) (ADS) gaiaren inguruko artikulu nabarmenenak izanik. Artikulu guztietan saltoak gertakari arraro gisa kontsideratzen dira, eta jauziak ordu jakin batean edo egun jakin batean hautemateko testak proposatzen dituzte.

Jauzi-egunak hauteman ondoren, Andersen et al. (2007a)-n estimatutako bolatilitatea aurreikusten dute, eredu autoerregresibo heterogeneoen (HAR) bitartez, saltoak aldagai azaltzaile gisa txertatuz. Corsi (2009)-k HAR ereduak estimatzen ditu bolatilitatearen osagaien deskonposizioa aplikatuz, horretarako bolatilitatearen estimatzaile ezberdinak erabiliz. Argindar merkatuei lotutako aplikazio batzuk hurrengo hauek dira: Chan et al. (2008) Australiako bost merkatuetarako, Ciarreta eta Zarraga (2016) Espainiako egun-arteko merkaturako eta Qu et al. (2016) Australian Hego Gales Berriko merkaturako. Guztiek, Barndorff-Nielsen eta Shephard (2006) jauzien testa aplikatzen dute aldagarritasun osoaren deskonposizioa lortzeko, eta deskonposatutako ereduak estimazio emaitza hobek lortzen dituela ondorioztatzen dute. Ciarreta et al. (2017)-ek analisia hedatzen dute alemaniar-austriar egun arteko merkatu etengabeen Andersen et al. (2007b) eta Corsi et al. (2010) salto-testak ere erabiliz. Hala ere, Ciarreta et al. (2017)-ek Barndorff-Nielsen eta Shephard (2006) jauzi-testa erabiliz deskonposatutako bolatilitateak aurreikuspen emaitza onenak eskaintzen dituela ondorioztatzen dute. Aipatutako analisi guztiak salto egunak hautemateko testetan oinarritzen dira.

2005ean, Japoniako elektrizitate merkatuaren liberalizazio prozesua aurrera eramateko eskaria eta eskaintza prezio eta kantitateetan orekatzen zituen merkatu bateratua sortu zen. Eskari eta eskaintzaren oreka hori ordu erdiro zehazten da. Kapitulu honek merkatuko antolatzaileak argitaratutako ordu erdiko maiztasuna duten prezioen bolatilitatea aurreikustea du helburutzat. Barndorff-Nielsen eta Shephard (2006), Andersen et al. (2007b) eta Corsi et al. (2010)-ek proposatutako salto-testez gain, Jiang eta Oomen (2008)-en eta Lee eta Mykland

(2007)-en jauzi-testak ere aplikatzen dira une jakin batean salto esanguratsuak hautemateko. Jauziak aipatutako azken bi testekin identifikatu ondoren, salto-egunak definitzen ditugu, emaitzak gainontzeko testekin alderatu ahal izateko. Salto-test bakoitza erabiliz gauzatutako bolatilitatea eta bere deskonposizioarentzat hainbat HAR eredu estimatzen dira, zeinetan GARCH berrikuntzak ere eranstu diren. Azkenik, lagin-barruko eta lagin-kanpoko hainbat irizpide erabiliz eredu eta salto-testen aurreikusteko gaitasuna ebaluatzen da.

Japoniako argindar merkatuaren azterketa gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da, batez ere 2011. urtean liberalizazioa sustatu zenetik. Burutzen den azterketa, araututako merkatu batetik lehia-merkatu batera irekitzeak bolatilitateari nola eragiten dion neurtzeko erabilgarria da. Energia berriztagarriak gero eta sarriago erabiltzea eta oinarrizko kargen ahalmena gutxitzea faktore osagarriak izango dira gure analisisian.

Kapitulua gainontzeko atalak honela daude antolatuta. 2.2 atalak metodologia berrikusten du. 2.3 atalak Japoniako argindar merkatua deskribatzen du. 2.4 atalak datuak eta estatistika deskribatzaile nagusiak azaltzen ditu. 2.5 atalak estimazioen eta aurreikuspenen emaitzak erakusten ditu, eta azkenik, 2.6 atalak ondorio nagusiak azpimarratzen ditu.

## 2.2 Metodologia

### 2.2.1 Salto-testak

Demagun prezioaren logaritmoak  $p_t$ , saltoen difusio prozesu bat jarraitzen duela, zeinak ondorengo moduan adierazten diren osagai ez-estokastiko eta osagai estokastiko bat dituen,

$$dp_t = \mu_t dt + \sigma_t dW_t + dJ_t$$

non  $\mu_t$  joera,  $\sigma_t$  hedapen parametroa,  $W_t$  mugimendu Browniar estandarra eta  $J_t$  salto-prozesua diren. Salto-prozesuak  $J_t = \sum_{j=1}^{N_t} c_{t_j}$  betetzen du, non  $c_{t_j}$  jauziaren tamaina eta  $N_t$   $t$  unera arte hautemandako jauzi kopurua diren. Jauziak ezohiko gertaerak izatea espero da, aldagarritasun jarraituko prozesuan zehar eman daitezkeenak. Prozesuaren aldakuntza koadratikoak ( $QV_t$ ) etengabeko aldagarritasunari lotutako zati bat, bolatilitate integratua ( $IV_t$ ) deiturikoa, eta jauzien tamainen karratuen baturari dagokion beste zati bat ditu:

$$QV_t = \underbrace{\int_0^t \sigma_s^2 ds}_{IV_t} + \sum_{j=1}^{N_t} c_{t_j}^2$$

Demagun  $[0, t]$  denbora-tartea  $M$  azpi-tartetan banatzen dela, azpi-tarte bakoitzak  $\Delta = 1/M$  luzera duelarik. Orokorrean,  $T$  salerosketa une daude denbora tarte bakoitzean. Hori dela eta, Andersen eta Bollerslev (1998) jarraituz,  $t$  egunean gauzatutako bolatilitatea  $RV_t$  egun-arteko errentagarritasun karratuen batura bezala definitzen da:



$$RV_t = \sum_{j=1}^M r_j^2,$$

non  $r_j$  egun-arteko log-prezioen diferentzia den  $j$  unean,  $r_j = p_j - p_{j-1}$  (finantza merkatuetan errentagarritasun ohikoa delarik). Hori dela eta,  $RV_t$  bolatilitate ikusezinaren neurri gisa hartzen da maiztasun altuko denbora-serieetan.

$IV_t$ -k  $RV_t$ -ren osagai jarraitua eta aurreikusgarria hartzen du eta hainbat estimatzaile erabiliz kalkula daiteke. Zati ez-jarraituetan,  $M \rightarrow \infty$  betetzen denean banaketa normal estandarrera hurbiltzen dela frogatuta dauden salto-testak erabiltzen dira. Horretarako, Huang eta Tauchen (2005)-k  $Z_t$  testa (Hausman (1978) motako testa) proposatzen dute. Estatistikoak aurrez ezarritako balio kritiko bat  $\Phi_{1-\alpha}$  gainditzen badu,  $t$  eguna salto-egun gisa sailkatzen da.

Prezioetan jauziak hautemateko hainbat test formal garatu dira.  $IV_t$ -a neurtzeko era desberdinetan oinarritutako jauziekiko sendoak diren test erabilienak aztertzen dira kapituluian zehar. Zehazki aipatutako test horiek honako hauke dira: multi-ahalmeneko aldagarritasunean (*multipower variation*) oinarritutako BNS testa, gauzatutako bolatilitatearen minimoan eta medianan oinarritutako ADS testak, atalase bat duen gauzatutako bolatilitatean oinarritutako CPR testa, bolatilitate lokalean oinarritutako LM testa eta trukaketa bariantzan (*swap variance*) oinarritutako JO testa. Testen aukeraketa honek  $IV_t$  neurtzeko existitzen diren era gehienak aintzat hartzen ditu<sup>3</sup>.

BNS testa gauzatutako bi-ahalmeneko bariantzan (*bipower variation*) ( $BV_t$ ) oinarritzen da. Egileek  $IV_t$ -a zentzuz estimatu daitekeela  $BV_t$  erabiliz frogatzen dute. Honelaxe kalkulatu da  $BV_t$ :

$$BV_t = 1.57 \frac{M}{(M-1)} \sum_{j=2}^M |r_j| |r_{j-1}|$$

BNS testaren estatistikoak  $Z_t^{BNS}$ ,  $RV_t$ -ren eta saltoekiko egonkorra den bariantzaren neurriaren ( $BV_t$ ) arteko diferentzia du oinarritzat. Jauzi esanguratsuak antzemateko estatistikoa ondoko eran kalkulatu da:

$$Z_t^{BNS} = \sqrt{M} \frac{(RV_t - BV_t)/RV_t}{\sqrt{0.61 \max[1, TQ_t/BV_t^2]}},$$

non laukotasun integratuaren (*integrated quarticity*) eragina hiru-ahalmeneko laukotasuna (*tripower quarticity*) ( $TQ_t$ ) erabiliz estima daitekeen:

$$TQ_t = 1.74 \left( \frac{M^2}{M-2} \right) \sum_{j=3}^M (|r_j| |r_{j-1}| |r_{j-2}|)^{4/3}$$

Datuen hainbat ezaugarri daude  $BV_t$  alboratu dezaketenak. Lehenik eta behin, lagin

---

<sup>3</sup>Badaude beste jauzi-test batzuk ere, esaterako Ait-Sahalia et al. (2009), Andersen et al. (2007a), Andersen et al. (2010) eta Mancini (2009). Hala ere, horietako batzuk kapituluian aplikatutako testen antzera neurtzen dute  $IV_t$  a edo, oro har, une zehatz beteko jauziak hautemateko erabiltzen dira, LM testaren kasuan bezala.

finituetan bi-ahalmeneko bariantza jauziek gorantz alboratu dezakete, eta ondorioz, salto kopurua gutxiesten da (begiratu Andersen et al. (2012)). Bigarrena, zero edo zerotik gertu dauden errentagarritasunek ere eragiten dute,  $BV_t$ -ren balioa murrizten dutelako. Ondorioz, jauzi gehiegi antzematen dira.

Andersen et al. (2012)-ek  $IV_t$ -rentzat bi estimatzaile eraginkor proposatzen dituzte hurbileneko balioen muga erabiliz:  $MinRV_t$  eta  $MedRV_t$  dira proposatutako  $IV_t$ -ren estimatzaileak hain zuzen ere.

$$\begin{aligned} MinRV_t &= 2.75 \left( \frac{M}{M-2} \right) \sum_{j=2}^M \min(|r_j|, |r_{j-1}|)^2 \\ MedRV_t &= 1.42 \left( \frac{M}{M-2} \right) \sum_{j=2}^{M-1} \text{med}(|r_{j-1}|, |r_j|, |r_{j+1}|)^2 \end{aligned}$$

$MedRV_t$ -a jarraian dauden hiru errentagarritasunen mediana da eta  $MinRV_t$  estimatzaileak  $MedRV_t$  estimatzaileak baino 0 errentagarritasunen eragin handiagoa jasaten du, eta ondorioz, eraginkortasun txikiagoa du.  $IV_t$ -ren bi estimatzaile hauek honako salto-testak eraikitzeke erabil daitezke:

$$\begin{aligned} Z_t^{MIN} &= \sqrt{M} \frac{(RV_t - MinRV_t)/RV_t}{\sqrt{1.81 \max \left[ 1, \frac{MinRQ_t}{MinRV_t^2} \right]}}, \\ Z_t^{MED} &= \sqrt{M} \frac{(RV_t - MedRV_t)/RV_t}{\sqrt{0.96 \max \left[ 1, \frac{MedRQ_t}{MedRV_t^2} \right]}} \end{aligned}$$

non  $IQ_t$ -ren estimatzaileak honako hauek diren:

$$MinRQ_t = 2.21 \frac{M^2}{M-1} \sum_{j=2}^M \min(|r_j|, |r_{j-1}|)^4$$

eta

$$MedRQ_t = 0.92 \frac{M^2}{M-2} \sum_{j=2}^{M-1} \text{med}(|r_{j-1}|, |r_j|, |r_{j+1}|)^4,$$

hurrenez hurren.

Corsi et al. (2010)-k  $IV_t$ -ren ia alborapenik gabeko estimatzaile koherente bat proposatu zuten, atalase bat duen bi-ahalmeneko bariantzan oinarritua:

$$CTBPV_t = 1.57 \sum_{j=2}^M W_1(r_j, \vartheta_j) W_1(r_{j-1}, \vartheta_{j-1}),$$

non  $W_1$  funtzioa honako eran definitzen den:

$$W_1(r_j, \vartheta_j) = \begin{cases} |r_j| & \text{baldin eta } r_j^2 \leq \vartheta_j \\ 1.094\vartheta_j^{1/2} & \text{baldin eta } r_j^2 > \vartheta_j \end{cases}$$

non  $\vartheta_j = c_v^2 \hat{V}_j^W$  errentagarritasunaren eta atalase balioaren arabera den. Bolatilitate lokala,  $\hat{V}_j^W$ , kernel Gaussiarrak erabiliz prozesu iteratibo baten bitartez estimatzen da:

$$\hat{V}_j^W = \frac{\sum_{i=-L, i \neq -1, 0, 1}^L K\left(\frac{i}{L}\right) r_{j+i}^2 I_{\{r_{j+i}^2 \leq c_v^2 \hat{V}_j^{W-1}\}}}{\sum_{i=-L, i \neq -1, 0, 1}^L K\left(\frac{i}{L}\right) I_{\{r_{j+i}^2 \leq c_v^2 \hat{V}_j^{W-1}\}}} \text{ non } W = 1, 2, \dots$$

Atalasearen balioaren hautaketak ez dio  $IV_t$ -ren estimatzailearen sendotasunari eragiten, eta estimazioan duen eragina marjinala da. Jauzi testaren estatistikoa hortaz hauxe da:

$$Z_t^{CPR} = \sqrt{M} \frac{(RV_t - CTBPV_t)/RV_t}{\sqrt{0.61 \max\left[1, \frac{CTTriPV_t}{CTBPV_t^2}\right]}}$$

non

$$CTTriPV_t = 1.74M \sum_{j=3}^M \prod_{k=1}^3 W_{4/3}(r_{j-k+1}, \vartheta_{j-k+1})$$

eta  $W_{4/3}$  Corsi et al. (2010)-n bezalaxe definituta dagoen. Lortutako testaren estatistikoa multi-ahalmeneko aldagarritasunaren test estatistikoa baino ahaltuagoa da, baina  $Z_t^{CPR}$  estatistikoari ere zero errentagarritasunek eragiten diote. Atalasearen eraikuntza  $BV_t$ -n oinarrituta dago, zeina negatiboki alboratua dagoen zero errentagarritasunen aurrean. Beraz, atalasearen balioa ere negatiboki alboratuta egon daiteke, eta ondorioz, CPR testak jauzi gehiegi antzeman ditzake.

BNS, ADS eta CPR jauzi-testak aplikatzen direnean, bolatilitatearen salto zatia ( $JV_t$ )  $RV_t$  eta  $IV_t$ -ren estimazioaren arteko diferentzia bezala definitzen da:

$$JV_t = I_{Z_t > \Phi_{1-\alpha}} \left( RV_t - \widehat{IV}_t \right)$$

non  $I_{Z_t > \Phi_{1-\alpha}} = 1$  den baldin eta  $Z_t > \Phi_{1-\alpha}$  eta 0 bestela. Behin bolatilitatearen salto zatia eratuta dagoenean, bolatilitatearen etengabeko aldagarritasuna,  $CV_t$ , gauzatutako bolatilitatearen eta salto zatiaren arteko diferentzia bezala kalkulatzen da:  $CV_t = RV_t - JV_t$ .

Lee eta Mykland (2007)-ek proposatutako testak  $i$  jauzia zehazki zein unetan gertatzen hautematen du eta  $t$  egunean antzematen diren salto kopurua ere kalkulatzen du. Testa egun-arteko errentagarritasun estandarizatuak atalase balio batekin alderatzean datza. Errentagarritasunen aldagarritasun lokala bi-ahalmeneko aldagarritasuna,  $BV_{t,i}$ ,  $K$  tamainako leihoetan kalkulatuz estimatzen da,

$$\widehat{\sigma}_i^2 = \frac{1}{K-2} \sum_{j=i-K+2}^{i-1} |r_j||r_{j-1}|.$$

Ondorioz, errentagarritasun estandarizatua  $\varsigma_i = r_i/\widehat{\sigma}_i$  da. Estatistikoa errentagarritasun estandarizatuen arteko maximoaren banaketa asintotikoaren arabera zehazten da, hau da:

$$\frac{\max(\varsigma_i) - C_N}{S_N} \xrightarrow{L} \xi$$

eta estatistikoak  $P(\xi) = \exp(-\exp(-x))$  banaketa futzioa jarraitzen du, non

$$C_N = \frac{(2 \log N)^{1/2}}{0.8} - \frac{\log \pi + \log(\log N)}{1.6 (2 \log N)^{1/2}}$$

$$S_N = \frac{1}{0.8 (2 \log N)^{1/2}}$$

eta  $N$  behaketa kopurua diren.  $K$  urteko salerosketa egun kopurua eta egun-arteko salerosketa kopurua aintzat hartuta eratzen da, hau da,  $K = \sqrt{365 \cdot M}$ . Zero errentagarritasunek testaren estatistikoari eragiten diote, baina BNS eta CPR testen estatistikoei baino maila apalagoan. Zero edo zerotik gertu dauden errentagarritasunen kasuan errentagarritasun estandarizatuak handiak izan daitezke, eta, honek saltorik ez egotearen hipotesi nulua baztertuko dezake.

LM testak egun-arteko jauziak identifikatzen ditu. Beraz, LM-k hautematen dituen jauziak beste testekin antzematen diren salto egunekin alderatzeko, Dumitru eta Urga (2012)-k proposatutako prozedurari jaramon eginez, estatistikoaren eguneko balio maximoa hartzen da aintzat. Beraz,  $\widehat{IV}$  estimazioa eratzeko  $RV_t$ -ren kalkulutik saltoa hauteman den errentagarritasunaren karratua kentzen da.

Jiang eta Oomen (2008)-ek proposatutako testak trukaketa bariantza,  $SwV_t$  deiturikoa, erabiltzen du, zeina errentagarritasun aritmetikoaren,  $R_j = (p_j - p_{j-1})/p_{j-1}$ , eta logaritmikoaren,  $r_j = \log p_j - \log p_{j-1}$ , arteko diferentzia den:

$$SwV_t = 2 \sum_{j=1}^M (R_j - r_j).$$

Saltorik ez dagoenean  $SwV_t(M)$  eta  $RV_t$ -ren arteko diferentzia 0 da,

$$\lim_{M \rightarrow \infty} (SwV_t - RV_t) = \begin{cases} 0, & \text{jauzirik ez baldin badago } [0, t] \text{ tartean} \\ 2 \int_0^t (\exp(J_u) - J_u - 1) dq_u - \int_0^t J_u^2 dq_u, & \text{jauziren bat baldin badago } [0, t] \text{ tartean} \end{cases}$$

non  $J_t$ -k saltoen prozesua adierazten duen. Hortaz, jauziak era esponentzian hautematen dira. JO testari dagokion estatistikoa honakoa da:

$$Z_t^{JO} = \frac{M \cdot BV_t}{\sqrt{\widehat{\Omega}_{SwV_t}}} \left( 1 - \frac{RV_t}{SwV_t} \right)$$

non  $\widehat{\Omega}_{SwV_t} = 3.05 \frac{M^3}{M-3} \sum_{j=0}^{M-4} \prod_{k=1}^4 |r_{j+k}|^{3/2}$  betetzen den. Azken hau, bi aldeko estatistikoa da, eta ondorioz, salto negatiboak antzeman daitezke. Estatistikoak balio handiak hartzen ditu errentagarritasun altuak edo baxuak daudenean. Zero errentagarritasunek test estatistikoari eragiten diote, batik bat  $\widehat{\Omega}_{SwV_t}$  kalkulatzean, saltorik ez egotearen hipotesi nulua maizago baztertzea eraginez. Azkenik,  $JV$ ,  $SwV$  eta  $RV$ -ren arteko diferentzia bezala kalkulaten da.

$IV_t$  era egonkor batean estimatzeko azpimarratu beharra dago bolatilitate neurriak kalkulatzeko erabiltzen diren datuen maiztasunak altua izan behar duela<sup>4</sup>. Hala ere, laginaren maiztasun oso altuek bariantza-neurriak alboratzea ekar dezakete merkatuko mikroegituraren zarata dela eta. Praktikan, hartu-eman hau 5 edo 30 minutuko datuak erabiliz maneiatzen da (begiratu Corsi et al. (2008)). Haugom et al. (2011)-ek maiztasunaren hautaketa merkatuko likidezaren arabera dela argudiatzen dute. Hortaz, maiztasun altuak likidezia altuko merkatuetan erabiltzen dira eta maiztasun baxuagoa likidezia baxuagoko merkatuetan. 5 minutuko maiztasuneko edo altuagoko datuak erabiltzen dituzten adibide batzuk Andersen et al. (2007a) eta Andersen et al. (2010) dira, non testak finantza merkatuetan aplikatzen diren. Beste ikerketa batzuek, ordea, maiztasun baxuagoko datuak darabiltzate, adibidez Andersen et al. (2003)-ek 30 minutuko errentagarritasunak erabiltzen dituzte.

Argindar merkatuetako aplikazioei erreparaturaz, Chan et al. (2008) eta Ullrich (2012)-k Australiako elektrizitate merkatuko ordu-erdiko maiztasuneko prezioak erabiltzen dituzte, eta Ullrich (2012)-k orduko maiztasuna duten datuak erabiltzen ditu Amerikako hiru elektrizitate merkatutarako. Gainera, Haugom et al. (2011)-k 30 minutuko datuak erabiltzen ditu Nord Pooleko etorkizuneko argindar merkatuan.

## 2.2.2 Gauzatutako bolatilitatea aurreikusteko ereduak

Corsi (2009)-en lanari jarraituz  $RV_t$  modelizatzeko HAR motako ereduak estimatzen dira (aurrerantzean, HAR-RV). HAR-RV ereduak patxadatsua da, estimatu beharreko parametro kopurua batez-besteko bitartez murrizten delako. Zehazki, honako erregresio lineala estimatzean datza:

$$RV_t = \beta_0 + \sum_{i=1}^3 \beta_i RV_{i,t-1} + \varepsilon_t, \quad (2.1)$$

non  $RV_{1,t-1} = RV_{t-1}$ ,  $RV_{2,t-1} = \frac{1}{7} \sum_{j=1}^7 RV_{t-j}$  eta  $RV_{3,t-1} = \frac{1}{30} \sum_{j=1}^{30} RV_{t-j}$  diren.  $RV_t$  seriearen autokorrelazioaren arabera, HAR-RV ereduak  $RV_t$ -ren atzeratutako horizonte desberdinak har daitezke aintzat. Test desberdinak erabiliz  $RV_t$ -ren deskonposaketako elementu jarraitua eta jauzi elementua HAR-RV ereduari gehitu dakizkioke, Andersen et al. (2007a)-ek egin bezala HAR-RV ereduari jauziak gehituz, HAR-RV-JV ereduak eratzen da:

<sup>4</sup>Ohartu baldintza hau test guztietarako amankomuna dela.

$$RV_t = \beta_0 + \sum_{i=1}^3 \beta_i RV_{i,t-1} + \lambda_1 JV_{t-1} + \varepsilon_t \quad (2.2)$$

Azkenik, deskonposaketako bi elementuak aintzat hartuz HAR-CV-JV eredua definitzen da:

$$RV_t = \theta_0 + \sum_{i=1}^3 \theta_i CV_{i,t-1} + \sum_{i=1}^3 \lambda_i JV_{i,t-1} + \varepsilon_t, \quad (2.3)$$

non  $CV_{i,t-1}$  eta  $JV_{i,t-1}$ ,  $RV_{i,t-1}$  bezala definituta dauden. (2.1), (2.2) eta (2.3) ekuazioak karratu txikiarren arruntetako estimatzailea erabiliz estimatzen dira, heterozedastizitate eta autokorrelazioarekiko zuzenduta dauden errore estandar egonkorrekin.

HAR motako ereduak heterozedastizitate baldintzatua edukiz gero, GARCH egiturak ereduari gehituz estimazioaren eraginkortasuna eta aurreikuspenen zehaztasuna handitu daiteke (begiratu esaterako, Corsi et al. (2008) eta Ciarreta et al. (2017)). Hortaz, baldintzatutako heterozedastizitatea dagoen jakiteko eredu bakoitzaren hondarretan estandarizatutako erroreei eta hauen karratuei Ljung-Box testa aplikatu dakieke.

Baldintzatutako heterozedastizitatea dagoela frogatzen den kasuetan, errorea honela deskonposatu da:  $\varepsilon_t = \sqrt{h_t}u_t$ , non  $h_t$  baldintzatutako aldagarritasuna den eta  $u_t$  normalki banatuta dagoen ausazko aldagai bat den. GARCH familiaren barneko hiru eredu aztertzen dira kapitulu honetan. Lehenik eta behin, ohikoena den GARCH(1,1) egitura estandarra, errore terminoaren banaketaren ezaugarri nagusiak azaltzen dituena:

$$h_t = \alpha_0 + \alpha \varepsilon_{t-1}^2 + \beta h_{t-1}, \quad (2.4)$$

non  $\alpha_0 > 0$ ,  $\alpha \geq 0$  eta  $\beta \geq 0$  diren. Bolatilitatearen iraunkortasuna  $\alpha + \beta$ -k neurtzen du eta 1 baino txikiagoa izan behar du,  $\varepsilon_t$ -ren baldintzatu gabeko bariantza finitua dela bermatzeko. Hala ere, praktikan baldintza hori ez da beti betetzen bolatilitatearen iraunkortasun altua dela eta. Horregatik, bigarren GARCH egitura IGARCH (1,1) eredua da (GARCH eredu integratua) non  $\alpha + \beta = 1$  baldintza bermatzen den:

$$h_t = \alpha_0 + \alpha \varepsilon_{t-1}^2 + (1 - \alpha)h_{t-1}, \quad (2.5)$$

non  $0 < \alpha < 1$ .

Azkenik, EGARCH (1,1) egitura asimetrikoa ere aztertzen da, RV-ak jasan ditzakeen shock positiboan eta negatiboan arteko efektu asimetrikoak ahalbidetzeko:

$$\log h_t = \delta_0 + \delta_1 \frac{|\varepsilon_{t-1}|}{\sqrt{h_{t-1}}} + \delta_2 \log h_{t-1} + \delta_3 \frac{\varepsilon_{t-1}}{\sqrt{h_{t-1}}}, \quad (2.6)$$

non  $\delta_3$ -k, normalean, finantza-serietan dauden efektu asimetrikoak atzematen dituen. Hala ere, elektrizitate merkatuetan ere horrelako efektu asimetrikoak atzematen dira (begiratu Ciarreta eta Zarraga (2016)).

GARCH egiturak gehituz eratzten diren eredu berriak egiantza handieneko estimatzailearen bidez estimatzen dira. Aipatutako ereduak, RV-ren deskonposaketak eta erroreetan GARCH egiturak sartzeak, estimazioen eta aurreikuspenen zehaztasunean duten eraginaren inguruko ondorioak ateratzea ahalbidetzen dute.

### 2.3 Japoniako argindar merkatuaren egitura eta erregulazioa

Hasiera batean, Japoniako elektrizitate-industria tokiko 10 monopoliotan antolatuta zegoen. Tokiko monopolio horiek bertikalki integratutako energia konpainiak (EPCO) ziren, ekoizpenaz, transmisioaz eta banaketaz arduratzen zirenak. Gainera, Japoniak bi maiztasun gune ditu, 50 Hz eta 60 Hz, eta transmisio-lineen bidez lotzen dira elkarrekin. EPCOek, oraindik ere, ekoizpen ahalmenaren zatirik handiena menperatzen dute. Kontuan izan, argindarrari dagokionean, Japonia nazioarteko loturarik ez duen herrialde isolatua dela.

Aurretik bertikalki erabat erregulatutako elektrizitate enpresetatik liberalizatzeko prozesua Japonian 1995ean hasi zen, hain zuzen ere, energia ekoizle independenteen (IPP) sarrera sustatzeko Elektrizitatearen Utilitatearen Industriako Legea (EUIL) onartu zenean. EPCOen gain zeuden arloetan lehia sustatzea zen EUILen helburua. Gainera, EUILek eskaintza sistema lehiakorreko merkatu bateratu bat sortzea ahalbidetu zuen. Aldi berean, tarifa berrikusteko baremo ebaluazio metodoa jarritz, elektrizitate tasaren sistema berrikusi zen<sup>5</sup>, hautazko kontratu hornikuntzak, erregai kostuen doikuntza sistema eta kudeaketa eraginkortasunaren berrikuspenaren bidez.

Liberalizazioan urrats gehiago 2005eko apirilean eman ziren, Japoniako Energia Elektrikoaren Trukea (JEPX) abiarazi zenean. JEPXek ordu erdiko maiztasuna duen eguneroko merkatu gisa funtzionatzen du. Edozein eguneko merkatuta bezala, merkatuko eremu bakoitzerako eguneko ordu jakin batean, biharamuneko ordu erdi guztietako prezio marjinalak eta merkatuaren konpentsazio kantitateak zehazten dira<sup>6</sup>. Transmisio sarean pilaketarik egon ezean, prezioa berdina da eremu guztietan. Maiztasun berdina duten eremuen artean pilaketak gutxitan egoten diren arren, maiztasun desberdinak dituzten eremuen artean sarriago egoten dira pilaketak, prezioen arteko desberdintasunak oso handiak ez badira ere.

Enkante sistema uniforme baten bidez egiten dira prezioen eskari eta eskaintzak. Sistema horren arabera, merkatuko parte-hartzaileek prezio eta kantitatearen arteko konbinazio baten eskaria edo eskaintza egiten dute ordu erdi bakoitzeko. Salerosketa eskaintzak elkartzen diren puntuan, hau da, orekan, elektrizitate kantitatea eta prezioa erabakitzen dira. Energia-trukaketaren helburuak argindar merkatuan likidezia eta malgutasuna areagotzea dira, parte-hartzaileek beren merkatu posizioak hornidura momentutik gertuago molda ditzaten. Hala ere, sistema malgu honek bolatilitatea handitzea dakar, eta argindar merkatuentzat kaltegarria izan daitezkeen ekoizpen hutsegiteak edo eskaeran ustekabeko shockak egon daitezke. Beraz,

<sup>5</sup>Baremo araudipean, araututako utilitatearen errendimendua antzekoa den utilitate talde batekin alderatzen da (Shleifer, 1985). Horrela, utilitate bakoitzaren prezioaren mugak galerak izan ditzake. Sistema honek kostuen murrizketaren bidez eraginkortasuna sustatzea du helburu.

<sup>6</sup>Merkatu antolatzaileak ez du prezioen salerosketarik irekitzen. Merkatuko eremu bakoitzean sistemaren prezio marjinalen enkantea eta herrialde osoarentzat prezio birtuala (sarean murrizketarik eta maiztasunetan desberdintasunik ez dagoela suposatuz) irekitzen ditu.

erabat isolatutako merkatuetan bolatilitatea aztertzea garrantzi handikoa sortatzen da.

JEPX bidez negoziatzen den elektrizitate kantitatea nabarmen handitu da EUIL onartu zenetik, hala ere, baxua izaten jarraitzen du argindar kontsumo guztiari erreparatuz, %5-aren azpitik. Beraz, merkatuak txiki izaten jarraitzen du, elektrizitatearen %95-a enkantera ireki gabeko alde biko kontratuen bidez saltzen baita. IPP-ak sartu arren, EPCO-ek merkatuan oraindik ere leku nabarmena daukate. Gainera, bi maiztasun guneen arteko transmisio ahalmen mugatuak (1200 MW) prezioak bi eremuetan berdinak izatea ekiditen du, eta hori merkatu lehiarako oztopo bat izan daiteke.

2011ko martxoan Fukushima Daiichi zentral nuklearrean izandako istripuak, sisteman efektu negatiboak murrizteko lehiakortasunerako oztopoak premia zuzendu behar zirela frogatu zuen. Prezioen gorabeherak merkatuan soilik antzeman daitezke. Hori dela eta, merkatu lehia ahula eta prezioen kontrol zorrotza egoteak, prezio mekanismoek eskaria eta eskaintza epe laburrean moldatu ahal ez izatea eragiten du<sup>7</sup>.

Horren ondorioz, agintari araugileek EPCO-ek duten merkatu kontrola murriztuz argindarraren erreforma sakon bat sustatu zuten. Erreforma nagusiak honakoak dira: (1) 2016ko apirilean, xehekako salmentako arauak indargabetuz, salmenta merkatua erabat irekitzea, (2) bi maiztasun eremuen arteko konexioak areagotzea, (3) EPCO-en aktibitate bereizketa 2020rako, (4) energia berriztagarrien barneratze sakonagoa eta (5) energia nuklearraren oinarritzko karga desgitea. Erreforma guzti horiek JEPX-en bidez salerositako elektrizitate bolumena handituz, merkatuko likidezia handitzea dute helburu. Ildo horretatik, merkatuko parte-hartzaileek aldaketa hauek aurreikusten dituztenez, etorkizuneko merkatuen likidezia azkar ari da handitzen, agenteek prezioen bolatilitate altutik babestea bilatzen baitute (Ofuji eta Tatsumi, 2016).

## 2.4 Datuak eta estatistika deskribatzaileak

Erabilitako datu basea JEPX-k argitaratutako eguneroko merkatuko 30 minuturoko prezioek (48 behaketa egun bakoitzeko) osatzen dute. Datuek 2005eko apirilaren 2tik 2015eko abenduaren 31ra arteko epea estaltzen dute, eta ondorioz, 1826448 ordu erdiko behaketa daude 3926 egunetan zehar banatuta. 2.1 Taulak prezioen oinarritzko estatistikoak deskribatzen ditu urtaroka banatuta.

batez-besteko prezioa ¥11.24/kWh-koa da ¥4.50/kWh-ko desbiderapen estandarrarekin, ¥2.95/kWh-ko prezio minimoa, ¥60/kWh-ko prezio maximoarekin. Prezioen tartea nahiko zabala da, prezio altuenak batez-besteko prezioa bost aldiz izatera irits daitezkeelako. Urtaroko hainbat efektu ikusten dira. Batez-besteko prezioa eta prezio-mediana neguan altuagoak dira beste urtarotetan baino, seguruenik etxeetako berogailuak direla eta. Udararen aire girotuaren kontsumoa altua bada ere, ez da beste urtarotetan baino prezio nabarmenki handiagoetan islatzen, agian jarduera ekonomiko txikiagoa izatearekin konpentsatzen delako.

2.2 Taulak asteko egunen prezioen estatistiko deskribatzaileak erakusten ditu. Asteko urtarokotasuna batez-bestekoan, medianan eta bolatilitatean hautematen da, asteburuetan jarduera ekonomiko txikiagoa dela eta baxuagoak baitira hirurak. Kasu gehienetan, asimetria

<sup>7</sup>2011ko martxoaz geroztik, EPCO gehienek galerak izan dituzte.



Taula 2.1: Urtaroka prezioen estatistiko deskribatzaileak.

	Negua	Udaberria	Udara	Udazkena	Guztira
Minimoa	4.00	3.30	2.95	4.34	2.95
Maximoa	42.00	35.00	60.00	39.23	60.00
Batez-bestekoa	12.14	10.89	10.93	11.09	11.24
Mediana	12.00	10.22	10.10	10.24	10.60
Db. st.	4.69	4.07	5.02	4.08	4.50
Asimetria	0.99 <sup>a</sup>	0.59 <sup>a</sup>	1.68 <sup>a</sup>	0.91 <sup>a</sup>	1.16 <sup>a</sup>
Kurtosia (Ge.)	2.48 <sup>a</sup>	-0.16 <sup>a</sup>	6.98 <sup>a</sup>	1.62 <sup>a</sup>	3.78 <sup>a</sup>
J-B	18248.06 <sup>a</sup>	2866.28 <sup>a</sup>	121597.53 <sup>a</sup>	11999.31 <sup>a</sup>	154442.95 <sup>a</sup>

Db. st., desbiderapen estandarra; Kurtosia (Ge.), Gehiegizko kurtosia; J-B, normaltasun Jarque-Bera testa. *a*-k (asimetriarik eza, gehiegizko kurtosi eza eta banaketa normala) izatearen hipotesi nuluaen baztertzea %1 esanguratasun mailan adierazten du.

eta gehiegizko kurtosi koefizienteak positiboak eta esanguratsuak dira eta horrek prezioen banaketa positiboki asimetrikoa eta leptokurtikoa dela adierazten du. Jarque-Bera testak prezioen banaketa normala ez dela baieztatzen du.

Taula 2.2: Asteko egun bakoitzeko prezioen estatistiko deskribatzaileak.

	Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Minimoa	2.95	4.00	3.99	3.78	3.83	3.08	3.00
Maximoa	39.67	44.92	43.67	55.00	60.00	33.96	23.84
Batez-bestekoa	11.50	11.66	11.64	11.72	11.67	10.40	10.09
Mediana	10.91	11.00	11.00	11.00	11.00	9.88	9.47
Db. st.	4.56	4.72	4.72	4.86	4.87	3.65	3.61
Asimetria	0.89 <sup>a</sup>	1.06 <sup>a</sup>	1.09 <sup>a</sup>	1.44 <sup>a</sup>	1.41 <sup>a</sup>	0.53 <sup>a</sup>	0.42 <sup>a</sup>
Kurtosia (Ge.)	1.73 <sup>a</sup>	2.57 <sup>a</sup>	2.63 <sup>a</sup>	5.74 <sup>a</sup>	5.73 <sup>a</sup>	0.39 <sup>a</sup>	-0.86 <sup>a</sup>
J-B	6931.81 <sup>a</sup>	12458.77 <sup>a</sup>	13087.01 <sup>a</sup>	46241.05 <sup>a</sup>	45583.24 <sup>a</sup>	1426.05 <sup>a</sup>	1610.22 <sup>a</sup>

Db. st., desbiderapen estandarra; Kurtosia (Ge.), Gehiegizko kurtosia; J-B, normaltasun Jarque-Bera testa. *a*-k (asimetriarik eza, gehiegizko kurtosi eza eta banaketa normala) izatearen hipotesi nuluaen baztertzea %1 esanguratasun mailan adierazten du.


Ullrich (2012), Ciarreta eta Zarraga (2016) eta Ciarreta et al. (2017) jarraituz, errentagarritasunen urtarokotasun efektuak errentagarritasunen hilabete bakoitzeko, asteko egun bakoitzeko eta eguneko ordu erdi bakoitzeko mediana kenduta kontrolatzen dira<sup>8</sup>.

2.1 Irudiak doituako errentagarritasunak irudikatzen ditu. 0 batez-bestekoaren inguruan daude doituako errentagarritasun horiek. Doituako errentagarritasun minimoa -0.77 unitate da, maximoa 0.89 eta desbiderapen estandarra 0.06. Bolatilitatea altua da eta prezioetan saltoak (positiboak eta negatiboak) ikus daitezke. Ezaugarri hauek direla eta, interesgarria da gauzatutako bolatilitatearen propietateak aztertzea eta 2.1 Irudiak bolatilitatearen deskonposizioa ere justifikatzen du. Azpimarratu beharra dago, doituako zero errentagarritasunen ehunekoa %25.44-koa dela, eta 2.2 Atalean azaltzen den bezala, honek hautemandako jauzi kopuruan eragina izan dezake. Azkenik, 2.1 Irudian bolatilitatearen talde pilaketa ere ikus daiteke eta horrek, baldintzatutako heterozedastizitatearen presentzia

<sup>8</sup>Urtarokotasuna kentzeko, bi banda pasabide filtro desberdin ere aplikatzen dira: Baxter eta King (1999) eta Christiano eta Fitzgerald (2003). Emaitzak, ordea, ez dira errentagarritasunen mediana kentzearenak baino hobeak. Beraz, prozedura errazena aplikatzen da kapituluuan.

adierazten du.

Irudia 2.1: Doitutako errentagarritasunak.



2.3 Taulak RV-ren estatistiko deskribatzaileak erakusten ditu eta 2.4 Taulak, aldiz, RV-ren deskonposizioarenak, hau da, CV eta JV-renak. Bolatilitate osoari saltoen ekarpen erlatiboa ere ikus daiteke (JV/RV).

Taula 2.3: RV-ren estatistiko deskribatzaileak.

Minimoa	$3.1 \cdot 10^{-3}$
Maximoa	2.39
Batez-bestekoa	0.17
Mediana	0.12
Db. st.	0.18
Asimetria	$3.54^a$
Kurtosia (Ge.)	$21.39^a$
J-B	$83047.01^a$

Db. st., desbiderapen estandarra; Kurtosia (Ge.), Gehiegizko kurtosia; J-B, normaltasun Jarque-Bera testa.  $a$ -k (asimetriarik eza, gehiegizko kurtosi eza eta banaketa normala) izatearen hipotesi nulua ez bazterte %1 esanguratasun mailan adierazten du.

Jauzi-test guztietan  $\alpha = 0.01$  da jauziak hautemateko esanguratasun maila<sup>9</sup>. CPR testerako,

<sup>9</sup>Tauchen eta Zhou (2011)-ek erakusten dute  $\alpha$  jauzi kopuruaren arabera aukeratu beharko litzatekeela. Zenbat eta handiagoa izan aldagarritasun osora saltoen ekarpena, orduan eta txikiagoa izan beharko litzateke

$c_{\vartheta} = 3$ , kernel Gaussiarra eta  $L = 100$  hautatzen dira. Azkenik, LM testerako  $K = 132$  finkatzen da.

Taula 2.4: CV eta JV-ren estatistiko deskribatzaileak.

	BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO
<b>CV</b>						
Minimoa	$1 \cdot 10^{-3}$	$1 \cdot 10^{-3}$	$3 \cdot 10^{-4}$	$2 \cdot 10^{-3}$	$3 \cdot 10^{-3}$	-0.03
Maximoa	2.39	1.37	2.39	2.39	2.39	2.03
Batez-bestekoa	0.12	0.11	0.16	0.17	0.13	0.14
Mediana	0.08	0.07	0.10	0.11	0.09	0.10
Db. st.	0.14	0.12	0.18	0.18	0.13	0.14
Asimetria	$4.15^a$	$3.49^a$	$3.71^a$	$3.65^a$	$4.12^a$	$3.59^a$
Kurtosia (Ge.)	$34.12^a$	$19.12^a$	$23.43^a$	$22.72^a$	$35.98^a$	$23.54^a$
J-B	$201747.35^a$	$67782.06^a$	$98761.71^a$	$93145.56^a$	$222721.94^a$	$99095.41^a$
<b>JV</b>						
Minimoa	0.00	0.00	0.00	0.00	0.00	-0.18
Maximoa	1.38	1.52	1.38	1.33	1.63	0.85
batez-bestekoa	0.05	0.07	0.02	$7 \cdot 10^{-3}$	0.04	0.04
Mediana	0.00	0.00	0.00	0.00	0.00	0.01
Db. st.	0.11	0.13	0.08	0.05	0.11	0.07
Asimetria	$4.13^a$	$4.28^a$	$7.30^a$	$11.09^a$	$5.25^a$	$3.10^a$
Kurtosia (Ge.)	$26.29^a$	$29.07^a$	$79.97^a$	$170.22^a$	$41.66^a$	$19.25^a$
J-B	$124246.43^a$	$150210.67^a$	$1081122.71^a$	$4820201.44^a$	$301745.01^a$	$66935.15^a$
<b>JV/RV (%)</b>	31.09	65.68	9.60	3.71	24.61	20.47

Db. st., desbiderapen estandarra; Kurtosia (Ge.), Gehiegizko kurtosia; J-B, normaltasun Jarque-Bera testa.  $a$ -k (asimetriarik eza, gehiegizko kurtosi eza eta banaketa normala) izatearen hipotesi nulua baztertzea %1 esanguratasun mailan adierazten du.

RV-ren batez-bestekoak, mediana eta desbiderazio estandarra, espero zitekeen bezala, CV eta JV-renak baino handiagoak dira. RV-ren balio minimoa CV-renaren berdina edo handiagoa da. RV, CV eta JV-ren banaketek gehiegizko kurtosia eta asimetria positiboa erakusten dituzte, hau da, banaketa leptokurtikoa daukate eta batez-besteko balioak medianak baino txikiagoak dira. Ondorioz, ez dute banaketa normala jarraitzen.

CV-ren batez-bestekoa JV-rena baino handiagoa da MIN eta MED testak aplikatzean, aldagarritasun osoari JV-k egiten dion ekarpen erlatiborik txikiena (%9.60 eta %3.71, hurrenez hurren) duten testak direlako. Balioen tartea zabalagoa da CV-rentzat JV-rentzat baino, CPR testarentzat izan ezik, non JV-k RV-ri egiten dion ekarpen erlatiboa (%65.68) den. Azken hau, hain zuzen ere, ekarpen erlatibo handiena egiten dion testa da. CPR testa erabiliz CV-rentzat lortutako desbiderapen estandarra JV-rena baino txikiagoa da, baina kontrakoa gertatzen da gainerako testetan.

Lortutako emaitzak testuinguruan jarritz, Chan et al. (2008)-ek Hegoaldeko Gales Berriko merkatuan saltoak aldagarritasun osoaren %5.21 direla eta Hego Australiako merkatuan %10.85-a direla frogatzen dute. Aitzitik, Ciarreta eta Zarraga (2016)-ek Espainiako egun-arteko argindar merkatuko saio desberdinetan saltoen proportzio erlatiboa %11.53 eta %25.88-ren artean dagoela erakusten dute.

aukeratutako  $\alpha$ .

2.5 Taulak test bikote bakoitzak hautematen dituen salto-egun guztien laginetik bi testetan batera antzematen diren saltoen ehunekoak erakusten du.

Taula 2.5: Testetan batera hautemandako salto egunen ehunekoak.

	BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO
BNS	42.15					
CPR	42.15	66.28				
MIN	7.85	8.81	8.86			
MED	2.85	2.93	2.09	2.93		
LM	15.44	21.17	4.08	1.48	26.77	
JO	29.24	44.68	6.32	2.29	18.06	64.44

2.5 Taulako elementu diagonalak egun guztien artean test bakoitzak atzemandako jauzi-egunen ehunekoak dira. Diagonalez kanpoko elementuak test bikote bakoitzak hautematen dituen salto-egun guztien laginetik bi testetan batera antzematen diren saltoen ehunekoak dira. Zero errentagarritasunen presentziak eta errentagarritasunen bolatilitate altuak (begiratu 2.1 Irudia) salto-testen emaitzak baldintzatzen dituzte. CPR eta BNS testek jauzi-egun gisa egunen %66.28-a eta %42.15-a antzematen dituzte, hurrenez hurren. Bi test hauek zero edo zerotik gertuko errentagarritasunen eragina nabaritzen dute eta beraz, alborapen horrek BV-ren balioa murrizten du jauzi gehiegi antzemanen. Azpimarratu behar da BNS-k atzemandako jauzi egun guztiak CPR-ek ere antzematen dituela, eta salto-testak eratzeko moduagatik gertatzen da hau. Biek IV-a multi-ahalmeneko aldagarritasuna erabiliz estimatzen dute, CPR testak, ordea, atalase bat ezartzen du IV-ren estimatzailearen balioa murriztuz eta, ondorioz, jauzi egun gehiago antzematen ditu. Bestalde, MIN eta MED testek zero errentagarritasunen eragin txikiagoa jasaten dute, eta hauexek dira, hain zuzen ere, jauzi-egun gutxien hautematen (%8.86-a eta %2.93-a, hurrenez hurren) dituzten testak. Gainera, orokorrean, antzemandako salto-egunak gainontzeko testek ere hautematen dituzte. JO-k egunen %64.44-a sailkatzen du salto-egun gisa. Jauzi-egun kopuru handi hori, prezio aldaketa handiak gertatzen direnean, errentagarritasun aritmetikoen eta logaritmikoen arteko aldea askotan handia delako antzematen da. Errentagarritasunen bolatilitate handia dela eta, prezio aldaketak askotan izaten dira handiak. Azkenik, LM-ek tokiko BV erabiltzen du errentagarritasunak estandarizatzeko eta horrek, tokiko bolatilitatean eragin dezake. K-ren balioak egun bateko behaketak baino gehiago erabiltzen ditu eta horrek, tokiko bolatilitatea handitzea ekar dezake, non taldeka sailkatutako bolatilitatea dela medio, jauzi-egun gutxiago detektatuko lirateke. Gainerako testekin alderatzean, JO eta LM testek hautemandako baterako salto-egunak irregularrak dira. Azkenik, kontuan izan behar da CPR eta JO direla RV-ren balio handiak (maximoa barne) salto gisa hautematen dituzten test bakarrak<sup>10</sup>.

Jauzi-testen esanguratasun maila baxua ( $\alpha = 0.01$ ) den arren, CPR eta JO testek salto-egun portzentaje handia hautematen dute. Horrek zalantzak sor ditzake jauziak ezohiko gertakariak direla baieztatzerakoan. Beraz, emaitzak kontu handiz hartu beharko lirateke test horiek alboratuta egotearen ondorioz jauzi-egun gehiegi hauteman baititzakete.

<sup>10</sup>Muturreko hornidura-kolpeek, esaterako Fukushima-Daichiiko hondamendi nuklearrak ez zuen errentagarritasunetan eragin berezirik izan, shocka ez zelako prezioen gorabehera handi gisa nabaritu. Hori dela eta, testek ez dute egun jakin horretan jauzirik antzematen.

Literaturan emaitza ezberdinak aurki daitezke. Adibidez, Qu et al. (2016)-ek jauzi-egunak egunen %34 direla aurkitzen dute Australiako Hegoaldeko Gales Berriko elektrizitate merkatuan. Haugom et al. (2011)-ek Nord Pooleko etorkizuneko argindar merkatuan %38.7-ko eta %47.3-ko salto-eguneko portzentajea dagoela baieztatzen dute hiruhileko eta urteko kontratuetan, hurrenez hurren. Hala ere, egile guztiek BNS testa bakarrik erabiltzen dute jauziak hautemateko. Azkenik, Ciarreta et al. (2017)-ek BNS, ADS (MED) eta CPR jauzi-testak aplikatzen dituzte EPEX merkatuan eta salto-egunen portzentajeak tarte zabala hartzen duela aurkitzen dute MED testarekin hautemandako %0.48-tik CPR testak hautemandako %38.41-ra.

## 2.5 Estimazioa eta aurreikuspen emaitzak

HAR ereduak  $RV_t$  aurreikusteko erabiltzen ditugu eta jauzi-test desberdinak erabiltzen ditugu deskonposizioa burutzeko. Ondoren, HAR-RV-JV eta HAR-CV-JV ereduak ere estimatzen ditugu<sup>11</sup>. Estimazio emaitzak 2.6 Taulan agertzen dira.

Taula 2.6: HAR ereduaren estimazio emaitzak.

HAR-RV		HAR-RV-JV					
		BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO
$\widehat{\beta}_0$	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.03 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_1$	0.34 <sup>a</sup>	0.37 <sup>a</sup>	0.43 <sup>a</sup>	0.33 <sup>a</sup>	0.34 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.27 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_2$	0.30 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>	0.29 <sup>a</sup>	0.31 <sup>a</sup>	0.31 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>	0.31 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_3$	0.23 <sup>a</sup>	0.24 <sup>a</sup>	0.24 <sup>a</sup>	0.23 <sup>a</sup>	0.23 <sup>a</sup>	0.24 <sup>a</sup>	0.21 <sup>a</sup>
$\widehat{\lambda}_1$	-	-0.08	-0.14 <sup>b</sup>	0.08	0.14	-0.02	0.30 <sup>a</sup>
AIC	-4034.92	-4041.35	-4061.73	-4038.88	-4042.71	-4029.96	-4068.73
		HAR-CV-JV					
		BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO
$\widehat{\theta}_0$		0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.02 <sup>a</sup>	0.03 <sup>a</sup>
$\widehat{\theta}_1$		0.37 <sup>a</sup>	0.42 <sup>a</sup>	0.33 <sup>a</sup>	0.34 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.27 <sup>a</sup>
$\widehat{\theta}_2$		0.29 <sup>a</sup>	0.29 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>	0.28 <sup>a</sup>
$\widehat{\theta}_3$		0.27 <sup>a</sup>	0.25 <sup>a</sup>	0.26 <sup>a</sup>	0.24 <sup>a</sup>	0.24 <sup>a</sup>	0.21 <sup>a</sup>
$\widehat{\lambda}_1$		0.29 <sup>a</sup>	0.28 <sup>a</sup>	0.42 <sup>a</sup>	0.49 <sup>a</sup>	0.33 <sup>a</sup>	0.54 <sup>a</sup>
$\widehat{\lambda}_2$		0.32 <sup>a</sup>	0.29 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.31 <sup>b</sup>	0.29 <sup>a</sup>	0.38 <sup>b</sup>
$\widehat{\lambda}_3$		0.19 <sup>b</sup>	0.23 <sup>b</sup>	0.06	0.11	0.24 <sup>b</sup>	0.20
AIC		-4038.09	-4057.84	-4037.54	-4039.46	-4025.97	-4065.59

HAR-RV (2.1) ekuazioa, HAR-RV-JV (2.2) ekuazioa eta HAR-CV-JV (2.3) ekuazioa jarraitzen duten ereduaren estimazioa, jauzi-test bakoitzerako. *a* eta *b*-k %1 eta %5 esanguratasun maila adierazten dute, hurrenez hurren.

HAR-RV ereduaren, (2.1) ekuazioan, estimatutako koefiziente guztiak positiboak eta esanguratsuak dira, bolatilitatearen iraunkortasun luzea erakutsiz.  $RV_t$ -n aurreko egunaren eraginaren tamaina nabarmenena da, eta ondoren, asteko eta hileko batez-besteko gauzatutako bolatilitatearen eragina dator. Izan ere, bolatilitate pilaketan presentzia denbora horizontea luzatu ahala gutxitzen doa. Emaitza hau, salto aldagarritasuna ereduaren sartzen denean,

<sup>11</sup>RV autokorrelazio altuko serie bat da eta autokorrelazio oso abiadura motelean murrizten da. Hilabete bat baino gehiago atzeratutako  $RV_t$ ,  $JV_t$  eta  $CV_t$ -ren horizonteak ere ereduaren aldagai azaltzaile gisa sartzea probatu da, baina esanguratsuak ez direnez, kontuan hartzen den horizonte altuena hilabetekoa da.

(2.2) ekuazioa, ere betetzen da, aplikatutako salto-test gehienetarako. Jauzi aldagarritasuna CPR eta JO salto-testak erabiltzen direnean soilik da estatistikoki esanguratsua, hain zuzen ere, jauzi-egun gehien hautematen dituzten testak dira hauexek. Saltoen estimatutako koefizientea CPR testa erabiltzen denean negatiboa da ( $\hat{\lambda}_1 = -0.14$ ), atzeratutako jauziek  $RV_t$ -a murrizten laguntzen dutela erakutsiz. Saltoen estimatutako koefizientea, aldiz, JO testarekin positiboa da ( $\hat{\lambda}_1 = 0.30$ ), atzeratutako jauziek  $RV_t$ -a areagotzen laguntzen dutela iradokiz. Hala ere,  $RV_t$ -ren egun bakarreko atzerapenaren koefizientearen balioa CPR testarekin ( $\hat{\beta}_1 = 0.43$ ) JO testarekin ( $\hat{\beta}_1 = 0.27$ ) baino handiagoa da. Beraz, azken finean, saltoen eragina  $RV_t$ -n antzekoa da.

HAR-CV-JV ereduari ((2.3) ekuazioa) erreparatuz, CV-ren estimatutako koefizienteak ere positiboak eta esanguratsuak dira, bolatilitatearen iraunkortasun handia erakutsiz. HAR-RV ereduan bezala, atzerapena handitu ahala eragina gutxitu egiten da. JV-ren kasuan, aurreko eguneko jauzien efektua, oro har, asteroko batez-besteko efektua baino handiagoa da, eta hileko batez-besteko efektua baino askoz handiagoa (azken hau, ez da esanguratsua salto-test batzuetarako). Izan ere, jauzien epe laburreko eragina beren epe laburreko izaerarekin bat dator. AIC irizpidearen arabera, eredurik onena HAR-RV-JV da JO-ren salto deskonposizioarekin.

Bestalde, HAR motako ereduaren errore terminoek heterozedastizitate baldintzatua erakusten dute. Ljung-Box testaren arabera, GARCH motako berrikuntzen erabilera eredu guztietan dago justifikatuta. Hori dela eta, HAR-RV, HAR-RV-JV eta HAR-CV-JV ereduak berriro estimatzen dira oraingoan GARCH motako hainbat berrikuntza sartuz ((2.4), (2.5) eta (2.6) ekuazioak). 2.7 Taulan IGARCH berrikuntzen estimazio-emaitzak agertzen dira<sup>12</sup>.

IGARCH ekuazioaren estimatutako koefizienteak positiboak dira eredu guztietarako. HAR-RV eta HAR-RV-JV ereduetan  $RV_t$  oso iraunkorra da, estimatutako koefiziente guztiak esanguratsuak eta positiboak direlako. Asteko batez-besteko RV-ren eragina handiagoa da aurreko eguneko behaketarena baino eta horrek, bolatilitate pilaketak aste betekoak direla esan nahi du. Emaitza hori GARCH berrikuntzarik ez duten ereduetarako lortutakoaren aurkakoa da. Saltoen estimatutako koefizientea,  $\hat{\lambda}_1$ , esanguratsua da %5-eko esanguratasun mailarekin BNS, CPR eta JO testak erabiltzen direnean. Atzeratutako RV-ren eragina handiagoa denez, estimatutako salto koefizientearen zeinua negatiboa da BNS eta CPR testetan. Kontrakoa gertatzen da, ordea, JO testarekin.

HAR-CV-JV ereduan atzeratutako CV-ren estimatutako koefiziente guztiak esanguratsuak eta positiboak dira eta, oro har, aurreko asteko CV-ak aurreko egunekoak baino efektu handiagoa du. Salto osagaiaren estimatutako koefizientearen eragina nabarmenki positiboa da eta, CV-ren kasuan bezala, asteko batez-bestekoaren eragina handiagoa da  $RV_t$ -rentzat aurreko eguneko eragina baino.  $RV_t$ -n JV-ren hilabeteko batez-bestekoaren eragina txikia da eta ez da esanguratsua jauzi-test batzuetan.

AIC irizpideari dagokionez, IGARCH berrikuntzak sartzen direnean lortutako irabaziak argiak dira. Kasu honetan, hautatutako eredu onena HAR-CV-JV da, RV deskonposatzeko

<sup>12</sup>Gainerako GARCH berrikuntzen estimazio-emaitzak ez dira erakusten, estimatutako GARCH koefizienteek ez dutelako baldintza-gabeko bariantza finitua izateko irizpidea betetzen. Dena den, IGARCH berrikuntzak dituzten ereduak EGARCH berrikuntzak dituzten ereduak baino emaitza hobek lortzen dituzte. Salbuespen bakarra MIN testarekin gertatzen da. Kasu honetan, EGARCH berrikuntzak dituen HAR-CV-JV ereduak emaitza hobek lortzen ditu IGARCH berrikuntzak dituenak baino.

Taula 2.7: HAR-IGARCH ereduen estimazio emaitzak.

HAR-RV		HAR-RV-JV					
	BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO	
$\widehat{\beta}_0$	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_1$	0.35 <sup>a</sup>	0.37 <sup>a</sup>	0.40 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.37 <sup>a</sup>	0.30 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_2$	0.41 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.40 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.40 <sup>a</sup>	0.43 <sup>a</sup>
$\widehat{\beta}_3$	0.17 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.17 <sup>a</sup>	0.17 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.15 <sup>a</sup>
$\widehat{\lambda}_1$	-	-0.08 <sup>a</sup>	-0.11 <sup>a</sup>	-0.03	-0.01	-0.06 <sup>c</sup>	0.20 <sup>a</sup>
$\widehat{\alpha}_0$	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>
$\widehat{\alpha}$	0.18 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>
AIC	-6627.93	-6634.01	-6644.63	-6627.17	-6625.97	-6626.51	-6650.06
		HAR-CV-JV					
	BNS	CPR	MIN	MED	LM	JO	
$\widehat{\theta}_0$	0.01 <sup>a</sup>	0.007 <sup>b</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>	0.01 <sup>a</sup>
$\widehat{\theta}_1$	0.37 <sup>a</sup>	0.40 <sup>a</sup>	0.35 <sup>a</sup>	0.34 <sup>a</sup>	0.36 <sup>a</sup>	0.29 <sup>a</sup>	
$\widehat{\theta}_2$	0.39 <sup>a</sup>	0.38 <sup>a</sup>	0.40 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.42 <sup>a</sup>	
$\widehat{\theta}_3$	0.24 <sup>a</sup>	0.25 <sup>a</sup>	0.21 <sup>a</sup>	0.20 <sup>a</sup>	0.21 <sup>a</sup>	0.16 <sup>a</sup>	
$\widehat{\lambda}_1$	0.30 <sup>a</sup>	0.29 <sup>a</sup>	0.31 <sup>a</sup>	0.36 <sup>a</sup>	0.33 <sup>a</sup>	0.50 <sup>a</sup>	
$\widehat{\lambda}_2$	0.44 <sup>a</sup>	0.42 <sup>a</sup>	0.48 <sup>a</sup>	0.39 <sup>a</sup>	0.41 <sup>a</sup>	0.46 <sup>a</sup>	
$\widehat{\lambda}_3$	0.10 <sup>c</sup>	0.13 <sup>a</sup>	-0.01	-0.04	0.13 <sup>b</sup>	0.08	
$\widehat{\alpha}_0$	0.001 <sup>a</sup>	0.0001 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	0.0004 <sup>a</sup>	
$\widehat{\alpha}$	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.19 <sup>a</sup>	0.18 <sup>a</sup>	
AIC	-6633.60	-6643.60	-6628.17	-6627.01	-6624.61	-6646.44	

HAR-RV (2.1) ekuazioa, HAR-RV-JV (2.2) ekuazioa eta HAR-CV-JV (2.3) ekuazioa jarraitzen duten ereduen estimazioa, jauzi-test bakoitzerako. *a*, *b* eta *c*-k %1, %5 eta %10 esanguratasun maila adierazten dute, hurrenez hurren.

JO-k proposatutako testa erabiliz. RV-n unitate baten igoerak hurrengo eguneko RV-ren  $0.30 + 0.43/7 + 0.15/30 = 0.37$ -ko igoera dakar jauzirik ez dagoenean, eta 0.20 aldiz jauziaren tamaina saltoa badago.

Eredu desberdinen laginketaz kanpo aurreikusteko gaitasuna batez-besteko errore karratuaren erroaren (RMSE) bitartez neurtzen da<sup>13</sup>. Laginez kanpoko irizpideak kalkulatzeko laginetik kanpo uzten ditugu azken sei hilabeteak (2015eko uztailaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra) eta azken hamabi hilabeteak (2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra). Ereduak gainerako behaketak kontuan hartuta estimatzen ditugu, modu errekurtsiboan, lagin barruko behaketen luzera duen leiho mugikor bat erabiliz. Leiho mugikor bakoitzean hurrengo eguneko bolatilitatea aurreikusten da<sup>14</sup>. RMSE irizpidearen emaitzak 2.8 Taulan daude eskuragarri.

Eredu bakoitzean laginez kanpoko aurreikuspenen zehaztasuna altuagoa da IGARCH berrikuntzak sartzean edozein jauzi-testerako. IGARCH berrikuntzak dituzten ereduen artean, sei hilabete laginetik kanpo geratzen direnean, gutxieneko RMSE balioa HAR-RV-JV ereduak

<sup>13</sup>  $RMSE = \sqrt{\frac{1}{F} \sum_{t=1}^F (RV_t - \widehat{RV}_t)^2}$ , non *F* aurreikusitako behaketa kopurua eta  $\widehat{RV}_t$  RV-ren aurreikusitako balioa diren. MAE (batez-besteko errore absolutua) eta MAPE (batez-besteko errore absolutuaren ehuneko) irizpideak ere kalkulatu dira. Emaitzak bat datoz RMSE irizpidearekin lortutako emaitzekin.

<sup>14</sup> Ereduei urrats bakoitzean behaketa berri bat gehituz ere kalkulatu da RMSE irizpidea era errekurtsiboan. Ereduen aukeraketa ez da aldatzen bide hau jarraituz.

Taula 2.8: RMSE irizpidea.

	6 hilabete	12 hilabete
HAR-RV	0.2098	0.1580
HAR-CV-JV BNS	0.2097	0.1580
HAR-CV-JV CPR	0.2099	0.1578
HAR-CV-JV MIN	0.2121	0.1602
HAR-CV-JV MED	0.2105	0.1587
HAR-CV-JV LM	0.2107	0.1589
HAR-CV-JV JO	0.2059	0.1555
HAR-RV-JV BNS	0.2090	0.1574
HAR-RV-JV CPR	0.2099	0.1580
HAR-RV-JV MIN	0.2115	0.1598
HAR-RV-JV MED	0.2103	0.1585
HAR-RV-JV LM	0.2102	0.1583
HAR-RV-JV JO	0.2056	0.1553
HAR-RV-IGARCH	0.2086	0.1572
HAR-CV-JV-IGARCH BNS	0.2077	0.1567
HAR-CV-JV-IGARCH CPR	0.2089	0.1572
HAR-CV-JV-IGARCH MIN	0.2084	0.1571
HAR-CV-JV-IGARCH MED	0.2092	0.1574
HAR-CV-JV-IGARCH LM	0.2093	0.1577
HAR-CV-JV-IGARCH JO	0.2054	<b>0.1550</b>
HAR-RV-JV-IGARCH BNS	0.2074	0.1564
HAR-RV-JV-IGARCH CPR	0.2087	0.1572
HAR-RV-JV-IGARCH MIN	0.2082	0.1569
HAR-RV-JV-IGARCH MED	0.2086	0.1571
HAR-RV-JV-IGARCH LM	0.2091	0.1574
HAR-RV-JV-IGARCH JO	<b>0.2053</b>	<b>0.1550</b>

Beltzez agertzen diren balioek emaitzarik onena duen eredu

adierazten dute.


JO jauzi-testa erabiliz lortzen du. Eredu hau eta HAR-CV-JV eredu

30 behaketako leih

2.2 Irudiak IGARCH berrikuntzekin eta l



Irudia 2.2: RMSE ratio mugikorra HAR-CV-JV ereduarentzat IGARCH berriztapenekin.



Azkenik, eredu bikote desberdinen arteko laginetik kanpoko aurreikuspen zehaztasun konparatzeko Andersen et al. (2003) metodologia ere erabiltzen da. Iripide honekin, jauzi-test guztietarako laginaren azken sei hilabeteetan RV aurreikustean, HAR-RV-JV ereduaren HAR-RV ereduaren baino hobeago dela ondorioztatzen da. HAR-CV-JV ereduaren LM testa erabiliz ere RV-ren deskonposaketarik ez duen ereduaren baino hobeago da. HAR-CV-JV ereduaren aurreikuspen hobeak ere agerian geratzen dira IGARCH berrikuntzak sartzean, jauzi-test guztietarako. Azken kasu honetan, JO-k MED-ek baino aurreikuspen hobeak eskaintzen ditu.

Laginez kanpoko urtebeteko aurreikuspenetan, Andersen et al. (2003)-ren metodologiaren bitartez lortutako emaitza argi bakarra, JO deskonposizioa erabiliz HAR-CV-JV eta HAR-RV-JV ereduak HAR-RV ereduaren gainditzen dutela da. Beste espero gabeko emaitza bat, JO testa erabiliz IGARCH berrikuntzarik erabili gabe egindako RV-ren aurreikuspenak hobeak direla da. Azkenik, HAR-RV-JV ereduari eta IGARCH berrikuntzei dagokienez, JO-k MED-ek baino aurreikuspen hobeak eskaintzen ditu.

Laburbilduz, lagin barruko eta laginetik kanpoko aurreikuspenek erakusten dute garrantzitsua dela jauziak aldagai azaltzaile gisa sartzea RV-ren atzerapenekin batera, azken hau, bolatilitatearen iraunkortasuna aintzat hartzeko. IGARCH berrikuntzak ere, heterozedastizitate baldintzatua dagoenez, garrantzitsuak dira. Aurreikuspenik oneneko ereduak RV deskonposatzeko JO jauzi-testa aplikatzen dutela aintzat hartu beharko litzateke. Jauzi egun kopuru handiena hautematen duen testetako bat da JO. Beraz, emaitza honek zalantzan jartzen du salto-testak jauzi gehiago antzemateak lagin barruko eta kanpoko behaketak aurreikusteko gaitasun handiagoa izatea eragiten duen. Hala ere, galdera honi erantzuteak azterketa sakonago bat eskatzen du, etorkizunean erantzun beharreko galdera gisa uzten duguna.

## 2.6 Ondorioak

Isolamenduak Japoniako argindar merkatuko erregulatzaileei errezeloa ematen zien herrialdeko elektrizitate merkatua liberalizatzeko, gainontzeko herrialde garatuetan 90.hamarkadaren amaieran egin zen bezala. Japoniako elektrizitate merkatuaren liberalizazioa 2005ean hasi zen ordu erdiko eguneroko merkatua abiaraziz. Ondorioz, prezioen bolatilitatea eta jauziak, guztiz araututako ingurune batekin alderatuz, non denbora tarte jakin baterako prezioak erregulatzaileek zehazten zituzten, ugaritu egin ziren. Merkatuaren garrantzia 2016an eguneroko posizioa egokitzeko egun-arte merkatua martxan jarriz nabarmendu zen. Azkenik, etorkizuneko merkatuek gero eta garrantzia handiagoa dute. Hori guztia dela eta, merkatuko parte-hartzaileek aurreikuspenen bitartez prezioen bolatilitatea nolakoa izango den jakin behar dute, eguneroko merkatuetako arriskua kudeatzeko.

Japoniako argindar prezioen ezaugarriek bolatilitate ikusezinaren estimatzaile gisa gauzatutako bolatilitatea erabiltzea ahalbidetzen dute. Gauzatutako bolatilitatea erabiltzen duten ereduak, maiztasun handiko datuak eskuragarri dauden merkatuetan, bolatilitatea aurreikusteko tresna baliagarriak direla argi ikusi da literaturan. Bolatilitatearen deskonposaketak, esperotako eta espero ez den bolatilitatea etengabeko aldagarritasuna eta jauzia osagaietan bereiztea ahalbidetzen du. Gure lanean sei test estatistiko ezberdin erabiltzen ditugu gauzatutako bolatilitatean jauziak antzemateko. Hainbat test zero errentagarritasunen (%25.44) presentziarekiko sentikorrek direnez, jauzi egunen identifikazioan tarte zabala dago %2.93-aren eta %66.28-aren artean. Gauzatutako bolatilitatearen estimazio eta aurreikuspen ahalmena alderatzen ditugu eredu bakoitzerako. Gauzatutako bolatilitatearen atzerapenak, jauziak edo bolatilitatearen deskonposizioaren osagaiak aldagai azaltzaile gisa dituzten ereduak konparatzen ditugu. GARCH egituren erabilera zuzena dela frogatu ondoren, ereduaren errore terminoan sartzen ditugu. Emaitzek, bolatilitatearen osagai etengabea iraunkorra eta saltoen osagaia iraupen laburrekoa dela erakusten dute. Bai lagin barneko eta bai laginez kanpoko aurreikuspen ahalmen onena, JO jauzi-testa erabiliz RV deskonposatzen duten eta IGARCH berrikuntzak barne hartzen dituzten ereduak dute. Azken honek, heterozedastizitate baldintzatua modelizatzearen garrantzia azpimarratzen du. Lagin barneko eta kanpoko aurreikuspen onenak eskaintzen dituen ereduak HAR-RV-JV da. Gainera, HAR-CV-JV ereduak ere aurreikuspen onak eskaintzen ditu urte bete laginetik kanpo uzten denean.

Argindar merkatuaren erreformek 2016ko apirilean egindako txikizkako lehiaren erabateko liberalizazioarekin jarraitu zuten. EPCO-ak 2020rako desagertuta egongo direla aurreikusten da. Beraz, JEPX merkatuak oraindik ere protagonismo handiagoa hartuko du. Gure emaitzak garrantzitsuak izan daitezke prezioen aldagarritasunean eta honen modelizazioan interesa duten merkatuko parte-hartzaileentzat. Bolatilitatea ondo aurreikustea bereziki garrantzitsua da, merkatuan lehia handiagoa sustatzen denean azken bezeroak, bai etxeetako eta baita industriakoak ere, prezioen salto eta gehiegizko bolatilitateak babesteko.

## 2.7 Bibliografia

- Aït-Sahalia, Y., Jacod, J., et al. (2009). Testing for jumps in a discretely observed process. *The Annals of Statistics*, 37(1):184–222.
- Andersen, T. G. & Bollerslev, T. (1998). Answering the skeptics: Yes, standard volatility models do provide accurate forecasts. *International economic review*, pages 885–905.
- Andersen, T. G., Bollerslev, T., & Diebold, F. X. (2007a). Roughing it up: Including jump components in the measurement, modeling, and forecasting of return volatility. *The review of economics and statistics*, 89(4):701–720.
- Andersen, T. G., Bollerslev, T., Diebold, F. X., & Labys, P. (2003). Modeling and forecasting realized volatility. *Econometrica*, 71(2):579–625.
- Andersen, T. G., Bollerslev, T., & Dobrev, D. (2007b). No-arbitrage semi-martingale restrictions for continuous-time volatility models subject to leverage effects, jumps and iid noise: Theory and testable distributional implications. *Journal of Econometrics*, 138(1):125–180.
- Andersen, T. G., Bollerslev, T., Frederiksen, P., & Ørregaard Nielsen, M. (2010). Continuous-time models, realized volatilities, and testable distributional implications for daily stock returns. *Journal of Applied Econometrics*, 25(2):233–261.
- Andersen, T. G., Dobrev, D., & Schaumburg, E. (2012). Jump-robust volatility estimation using nearest neighbor truncation. *Journal of Econometrics*, 169(1):75–93.
- Barndorff-Nielsen, O. E. & Shephard, N. (2004). Power and bipower variation with stochastic volatility and jumps. *Journal of financial econometrics*, 2(1):1–37.
- Barndorff-Nielsen, O. E. & Shephard, N. (2006). Econometrics of testing for jumps in financial economics using bipower variation. *Journal of financial Econometrics*, 4(1):1–30.
- Baxter, M. & King, R. G. (1999). Measuring business cycles: approximate band-pass filters for economic time series. *Review of economics and statistics*, 81(4):575–593.
- Chan, K. F., Gray, P., & van Campen, B. (2008). A new approach to characterizing and forecasting electricity price volatility. *International Journal of Forecasting*, 24(4):728–743.
- Christiano, L. J. & Fitzgerald, T. J. (2003). The band pass filter. *international economic review*, 44(2):435–465.
- Ciarreta, A., Muniain, P., & Zarraga, A. (2017). Modeling and forecasting realized volatility in German–Austrian continuous intraday electricity prices. *Journal of Forecasting*, 36(6):680–690.
- Ciarreta, A. & Zarraga, A. (2016). Modeling realized volatility on the Spanish intra-day electricity market. *Energy Economics*, 58:152–163.
- Corsi, F. (2009). A simple approximate long-memory model of realized volatility. *Journal of Financial Econometrics*, 7(2):174–196.

- Corsi, F., Mittnik, S., Pigorsch, C., & Pigorsch, U. (2008). The volatility of realized volatility. *Econometric Reviews*, 27(1-3):46–78.
- Corsi, F., Pirino, D., & Reno, R. (2010). Threshold bipower variation and the impact of jumps on volatility forecasting. *Journal of Econometrics*, 159(2):276–288.
- Cramton, P. (2017). Electricity market design. *Oxford Review of Economic Policy*, 33(4):589–612.
- Dumitru, A.-M. & Urga, G. (2012). Identifying jumps in financial assets: a comparison between nonparametric jump tests. *Journal of Business & Economic Statistics*, 30(2):242–255.
- Haugom, E., Westgaard, S., Solibakke, P. B., & Lien, G. (2011). Realized volatility and the influence of market measures on predictability: Analysis of Nord Pool forward electricity data. *Energy Economics*, 33(6):1206–1215.
- Hausman, J. A. (1978). Specification tests in econometrics. *Econometrica: Journal of the econometric society*, pages 1251–1271.
- Huang, X. & Tauchen, G. (2005). The relative contribution of jumps to total price variance. *Journal of financial econometrics*, 3(4):456–499.
- Jiang, G. J. & Oomen, R. C. (2008). Testing for jumps when asset prices are observed with noise—a swap variance approach. *Journal of Econometrics*, 144(2):352–370.
- Lee, S. S. & Mykland, P. A. (2007). Jumps in financial markets: A new nonparametric test and jump dynamics. *The Review of Financial Studies*, 21(6):2535–2563.
- Mancini, C. (2009). Non-parametric threshold estimation for models with stochastic diffusion coefficient and jumps. *Scandinavian Journal of Statistics*, 36(2):270–296.
- Ofuji, K. & Tatsumi, N. (2016). A count model analysis of traded contracts in the JEPX forward market. *Electrical Engineering in Japan*, 194(4):10–18.
- Qu, H., Chen, W., Niu, M., & Li, X. (2016). Forecasting realized volatility in electricity markets using logistic smooth transition heterogeneous autoregressive models. *Energy Economics*, 54:68–76.
- Shleifer, A. (1985). A theory of yardstick competition. *The RAND Journal of Economics*, pages 319–327.
- Tauchen, G. & Zhou, H. (2011). Realized jumps on financial markets and predicting credit spreads. *Journal of Econometrics*, 160(1):102–118.
- Ullrich, C. J. (2012). Realized volatility and price spikes in electricity markets: The importance of observation frequency. *Energy Economics*, 34(6):1809–1818.

# 3

## Saltoak eta kosaltoak elektrizitate prezio aurreikuspenetan: Austria eta Alemaniako eguneroko merkatuan

### 3.1 Sarrera

Argindarraren merkatuen liberalizazioarekin elektrizitatearen prezioen eraketa ulertzeko beharra sortu zen. Prezioak egoki modelizatuta daudenean, eredu horiekin aurreikuspen zehatzak eskuratzen dira. Epe laburrean, merkatuko parte-hartzaileek aurreikuspen horiek kontsumo eta produkzio erabakiak optimizatzeko seinale gisa erabiltzen dituzte. Beraz, argindar prezioen dinamika hobeto ulertzea funtsezkoa da. Hala ere, elektrizitatea gorde ezin daitekeen ondasun bat denez, argindar prezioek produktu finantzarioekin alderatuta ezaugarri berezi batzuk daukate. Elektrizitatearen prezioak bolatilitate altuko eta salto ugaridun serieak dira, eta batez-bestekora itzultzeko joera, urtarokotasuna eta egonkortasuna ere nabarmentzen dira.

Elektrizitatearen prezioen modelizazioan eta aurreikuspenean prezio saltoen modelizazioa funtsezkoa da. Ikerketa artikulu ugari garatu dira saltoen inguruan elektrizitatearen prezioen bolatilitatea modelizatzeko eta aurreikusteko, adibide batzuk Chan et al. (2008) eta Ciarreta et al. (2017) dira. Bi kasuetan, ereduetan jauziak sartuz bolatilitatea modelizatzen eta aurreikusten da eta biek, jauziek bolatilitatearen modelizazio eta aurreikuspenari informazio garrantzitsua gehitzen diotela ondorioztatzen dute. Ciarreta et al. (2018)-ek hainbat test desberdin erabiltzen dituzte jauziak hautemateko, eta Lee eta Mykland (2007) (LM)-k proposatutako jauzi-testak, beste test batzuekin alderatuz, bolatilitatea nahiko ondo aurreikusten duela ondorioztatzen dute. Gainera, Dumitru eta Urga (2012)-k LM jauzi-testak finantza datuak erabiliz bolatilitatearen iragarpen onak egiten dituela frogatzen dute.

Gainera, literatura berri bat ari da garatzen, zeinetan denbora-serieen modelizazioan saltuez gain kosaltoak ere gehitzea proposatzen den. Kosaltoak denbora-serie desberdinetan aldi berean gertatzen diren jauziak dira. Kosaltoen analisiaren inguruko artikulu aitzindarietako bat Gilder et al. (2014) da, non kosaltoak aintzat hartuz stock-prezio desberdinak modelizatzen dituzten.

Argindar prezioen aurreikuspenen zehaztasuna hobetzeko prezioak eraldatu egin daitezke. Ildo horretatik, Uniejewski et al. (2018)-ek elektrizitate merkatu desberdinetan aldagarritasuna egonkortzeko hainbat eraldaketaren aurreikuspen ahalmena egiaztatzen dute. Artikuluaren ondorio nagusia, oro har, banaketa normala erabiliz probabilitatearen eraldaketa integrala (N-PIT) eraldaketa onena dela da.

Argindarraren prezioen modelizazioak eta aurreikuspenek argindar prezioen izaera ziurgabea azaldu nahi dute. Literaturan, elektrizitatearen prezioen modelizazioari dagokionez ikuspegi ugari aplikatu dira. Azken ikerketek aldagai exogenoak dituzten eredu autoerregresiboak dituzte ardatz, hain zuzen ere, ARX ereduak. Ziel eta Weron (2018) artikuluan, aldagai bakarreko eta anitzeko ereduak konparatzen dira, aldagai bakarreko prezioen seriea denbora-serie desberdinetan banatzean datza aldagai anitzeko analisia. Aurreikuspenen zehaztasunean aldagai anitzeko ereduak aplikatuz hobekuntza bat dagoela ondorioztatzen dute. Gainera, estimatzeko kostu konputazionala ere baxuagoa da aldagai anitzeko ereduentzat. ARX ereduak normalean estimatzeko parametro ugari izaten dituzte eta horrek, karratu txikiaren arruntetako estimazioa (OLS) zaildu egiten du. Ondorioz, literaturan murrizketa propietatea duten estimatzaileak aplikatzen dira. Tibshirani (1996) artikuluan esaterako, murrizketa propietatea duen Lasso estimatzailea proposatzen da, hau da, aldagai aukeraketa ahalbide duen estimazio metodoa. Aldiz, Zou eta Hastie (2005)-k sare elastikoa izeneko estimatzailea proposatzen dute. Sare elastikoa OLS estimazio metodoari zigorrak gehituz, Lasso eta Gain zigorrak deiturikoak, aldagai kopurua murrizten duen estimatzailea da. Uniejewski et al. (2016)-ek elektrizitate prezioen aurreikuspenean aldagai hautaketa propietatea duten hainbat estimazio metodo aplikatzen dituzte eta estimazio metodo onena sare elastikoa dela ondorioztatzen dute.

Azkenik, eredu desberdinen aurreikuspen errendimendua ebaluatzen da. Literaturan xede horretarako erabilitako irizpide ohikoenak batez-besteko errore absolutua (MAE) eta batez-besteko errore karratuaren erroa (RMSE) dira. Adibide batzuk Uniejewski et al. (2018) edo Uniejewski et al. (2016)-n aurki daitezke. Ereduen aurreikuspen errendimendua egiaztatu ondoren, bikoteka ereduaren arteko aldearen esanguratasuna konparatzen da Diebold eta Mariano (2002) erabiliz.

Lan honen helburua Alemaniako eta Austriako eguneroko merkatuko elektrizitate prezioak ahalik eta zehatzen aurreikustea da. Alemania eta Austrian likidezia handiena duen merkatua da eguneroko merkatua. Beraz, merkatu honetan eragile askok parte hartzen dute. Eragile horiek etekinak maximizatuko dituen salerosketa estrategiak erabakitzeko seinaleak behar dituzte. Seinale hauek hurrengo egunetarako egindako prezioen aurreikuspenak dira. Kapitulu honetan, jauziek eta kosaltoek elektrizitatearen prezioen modelizazioari eta aurreikuspenari egiten dioten ekarpena aztertzen da.

Azterketa burutzeko bi prezio-serie hartzen dira kontuan: (i) jatorrizko prezioen seriea eta (ii) N-PIT aplikatu ondorengo prezio-serie eraldatua. Jatorrizko eta eraldatutako prezio-serieak 24

denbora-serieetan bereizten dira, eguneko ordu bakoitzari dagozkionak. Beraz, aldagai anitzeko bi serie daude, jatorrizkoa eta eraldatutako prezioen seriea, eta bakoitzak 24 aldagai ditu. Jauzi eta kosaltoen informazioa gehituz, jatorrizko prezioen serieak eraldatutako prezioak bezain ondo aurreikusi dezakeen aztertzen dugu. Estimatuako erreferentzia eredu ARX motako eredu da, Ziel eta Weron (2018)-en fARX (ARX osoa) ereduaren antzekoa. Egileek fARX ereduak elektrizitate prezioen batez-bestekoa egoki estimatzen duela argudiatzen dute, hau da, fARX ereduak estimatu ondoren hondarren batez-bestekoa 0 dela. ARX erreferentzi eredu estimatu ondoren, hondarrak aztertzen dira jauziak eta kosaltoak hautemateko. Jauzi eta kosaltoen analisia hondarretan burutzen da, hondarrak urtarokotasunera egokituta daudelako. Horrela, urtarokotasuneko efektu diren saltoak jauzi esanguratsu gisa hautematea saihesten da.

Jauziak Lee eta Mykland (2007)-ek proposatzen duen moduan hautematen dira. Jauziak antzemateko LM salto-testa erabiltzen dugu, testa eguneroko maiztasuna duten datuetarako aplikagarria izan behar delako. Izan ere, literaturan aplikatutako jauzi-testik ezagunen artean LM-k bakarrik funtzionatzen du eguneroko behaketekin; ikusi adibidez, Ciarreta et al. (2018) eta Dumitru eta Urga (2012). Kosaltoak Gilder et al. (2014) jarraituz kalkulatzen dira. Dakigun neurrian, ez dago beste analisirik planteamendu honi jarraituz jauziak eta kosaltoak hautemateko. Elektrizitate merkatuetan LM jauzi-testa elektrizitate prezioen bolatilitatea aurreikusteko baino ez da aplikatu eta ez dago LM testa aplikatzen duen beste ikerketarik elektrizitatearen prezioak zuzenean aurreikusteko. Gainera, orain arte kosaltoak ez dira elektrizitate merkatuetan aztertu. Kapitulu honetan, kosaltoak egun berean ordu desberdinetan hautematen diren jauziak direnez, ordu desberdinetako jauzien arteko korrelazioa aintzat hartzen da.

Jauziak eta kosaltoak identifikatu ondoren, ARX ereduari jauzi eta kosalto aldagaiak gehitzen zaizkio, ARX-J eta ARX-J-CJ deituriko ereduak eratuz. Hiru ereduak ARX, ARX-J eta ARX-J-CJ sare elastikoaren bidez estimatzen dira. Ondoren, hurrengo zazpi egunak aurreikusten dira. Azkenik, MAE eta RMSE irizpideek aurreikuspenen errendimendua ebaluatzen dute. Ereduen aurreikuspenen arteko aldea bikoteka Diebold eta Mariano (2002) erabiliz alderatzen da.

Gainontzeko atalak honela antolatuta daude: 3.2 atalean azterketa egiteko erabilitako metodologia azaltzen da, 3.2.1 azpiatalean eraldaketa deskribatzen da eta 3.2.2 azpiatalean erabilitako ereduak azaltzen dira. 3.2.3 eta 3.2.4 azpiataletan salto eta kosaltoak nola hautematen diren azaltzen da. 3.2.5 eta 3.2.6 azpiataletan sare elastikoa estimatzailearen deskribapena eta iragarpen prozeduraren azalpena ematen dira. 3.3 atalak azterketan erabilitako datuak deskribatzen ditu. 3.4 atalak eredu eta eraldaketa guztietako aurreikuspen emaitzak erakusten dituen bitartean. Azkenik, 3.5 atalak emaitzak laburbildu eta ondorio nagusiak ateratzen ditu.

## 3.2 Metodologia

Prezioen modelizazioak hainbat pauso jarraitzen ditu. Lehen urratsean, prezioen seriea bariantza egonkortzeko eraldaketa (VST) erabiliz eraldatzen da, eraldaketa honek

aurreikuspenak hobetzeko denbora-seriea leuntzen duelarik. VST-en artean, prezio negatiboetan aplika daitezkeen eraldaketak aztertzen dira. Kapitulu honetan, Uniejewski et al. (2018)-k proposatutako N-PIT eraldaketa erabiltzen da<sup>1</sup>. Ondoren, bi serieak eguneko ordu bakoitzari dagozkion 24 prezio serietan bereizten ditugu<sup>2</sup>. Lehenik ARX ereduak estimatzen da sare elastikoa erabiliz. Hurrengo urratsa, ARX ereduaren hondarretan saltoak hautematea da. Horretarako, Lee eta Mykland (2007)-k proposatutako jauzi-testa aplikatzen da. 24 denbora-serie bakoitzeko jauzi guztiak identifikatu ondoren, kosaltoak atzematen dira Gilder et al. (2014) jarraituz. Azkenik, kapitulu honetan proposatutako bi ereduak estimatzen dira, ARX-J eta ARX-J-CJ.

Ereduak estimatu ondoren, aurreikuspenak egiten dira. MAE eta RMSE irizpideek aurreikusitako balioen zehaztasuna ebaluatzen dute eta azkenik, aurreikuspenen errendimendua bikoteka konparatzeko Diebold eta Mariano (2002) testa (DM) erabiltzen da.

### 3.2.1 N-PIT eraldaketa

Aurreikuspenen errendimendua hobetzeko VST-ek denbora-seriea leuntzen dute. Prezio negatiboak egoteak ez du horretarako ohiko eraldaketa logaritmikoa aplikatzea ahalbidetzen. Analisi honetan, N-PIT-a hartzen da aintzat. Eraldaketaren atzean dagoen ideia denbora-seriearen banaketa ezezaguna normalizatzea da. Eraldatutako prezioek banaketa normala jarraitzen dute eta beraz, eraldatutako prezioak aurreikustea errazagoa da. Eraldaketak banaketa funtzio enpirikoa erabiltzen du prezioen banaketa funtzio ezezagunaren hurbilpen gisa. Banaketa enpirikoaren funtzioa aplikatu ondoren, banaketa normalaren alderantzizkoa erabiltzen da. Beraz, prezioen eraldaketa honela kalkulatzen da:

$$y_{d,h} = \Phi^{-1}(\widehat{F}_P(p_{d,h}))$$

non  $y_{d,h}$   $d$  eguneko eta  $h$  orduko eraldatutako prezioa,  $\Phi^{-1}$  banaketa normalaren alderantzizkoa,  $\widehat{F}_P$   $P$  denbora-seriearen banaketa funtzio enpirikoa eta  $p_{d,h}$   $d$  eguneko eta  $h$  orduko behatutako prezioa diren. Argindarraren eraldatutako prezioa hurrengo egunetarako aurreikusi ondoren, eraldaketaren alderantzizkoa aplikatu behar da aurreikusitako prezioa berreskuratzeko:

$$p_{d,h} = \widehat{F}_P^{-1}(\Phi(y_{d,h})).$$

### 3.2.2 Ereduak

Ikerketaren helburua jauziek eta kosaltoek argindar prezioen aurreikuspenen zehaztasunean duten eragina aztertzea da. Horretarako, ARX motako hiru eredu desberdin estimatzen dira.

Aztertutako lehenengo ereduak ARX ereduak da, Ziel eta Weron (2018)-k proposatutako fARX ereduaren oinarrituta dagoena. Egileek fARX ereduak prezioen batez-besteko portaera nahiko

<sup>1</sup>Uniejewski et al. (2018)-n hainbat VST konparatzen dira. Egileen arabera elektrizitatearen prezioak aurreikusteko mlog, asinh eta N-PIT dira onenak. Hala ere, gure datuekin N-PIT-ak mlog eta asinh eraldaketak gainditzen ditu, beraz, N-PIT-a da aplikatutako eraldaketa.

<sup>2</sup>Transformazioa ordu bakoitzari banan-banan aplikatuko balitz, eraldatutako denbora serie guztiek 0 batez-bestekoa eta desbideratze estandar unitarioa lukete, baina zoritxarrez, ordu bakoitzarentzat eraldaketa desberdin bat aplikatuko litzateke. Ondorioz, korrelazio egitura guztiak desagertuko lirateke, eta berriak sortu.



modu egokian harrapatzen duela argudiatzen dute. Kapitulu honetan aplikatutako ARX eredua honako hau da:

$$\begin{aligned}
 p_{d,h} = & \underbrace{\beta_{h,0,0,0}}_{\text{Konstantea}} + \underbrace{\sum_{s=1}^{24} \sum_{i=1}^8 \beta_{h,s,i,0} p_{d-i,s}}_{\text{Efektu autorregresiboak}} + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,\min,i,0} p_{d-i,\min} + \sum_{i=1}^8 \beta_{h,\max,i,0} p_{d-i,\max}}_{\text{Efektu ez-linealak}} \\
 & + \underbrace{\sum_{j=1}^7 \left[ (\beta_{h,0,0,j} + \beta_{h,h,1,j} p_{d-1,h} + \beta_{h,24,1,j} p_{d-1,24}) \text{DoW}_d^j \right]}_{\text{Asteko egunaren efektuak}} + \epsilon_{d,h} \tag{3.1}
 \end{aligned}$$

non  $p_{d,\min}$  eta  $p_{d,\max}$   $d$  eguneko 24 orduen artean balio minimoa eta maximoa diren, hurrenez hurren.  $\text{DoW}_d^j$   $j$  asteko egunaren fikziozko aldagaia da,  $\epsilon_{d,h}$  errore terminoa da eta eraturako moduagatik 0 batez-besteakoa du. (3.1) ekuazioaren bigarren terminoan efektu autorregresiboak eta zeharkako efektuak hartzen dira aintzat eta prezioen tartea efektu ez-linealetan dago sartuta. Azkenik, asteko urtarokotasuna asteko efektuetan hartzen da kontuan. ARX ereduan ordu bakoitzeko guztira 230 parametro daude estimatzeko.

Bigarren ereduan jauziak (3.1) ekuazioari gehitzen zaizkio, ARX-J deituriko eredua eratuz. Jauziak ARX ereduko hondarretan hautematen dira. Horrela, urtarokotasun efektuak denbora serietik dagoeneko kenduta daude. ARX-J ereduan jauzi positiboak, negatiboak eta hauen atzerapenak daude sartuta. ARX-J eredua ondoko eran adierazten da:

$$\begin{aligned}
 p_{d,h} = & \underbrace{\beta_{h,0,0,0}}_{\text{Konstantea}} + \underbrace{\sum_{s=1}^{24} \sum_{i=1}^8 \beta_{h,s,i,0} p_{d-i,s}}_{\text{Efektu autorregresiboak}} + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,\min,i,0} p_{d-i,\min} + \sum_{i=1}^8 \beta_{h,\max,i,0} p_{d-i,\max}}_{\text{Efektu ez-linealak}} \\
 & + \underbrace{\sum_{j=1}^7 \left[ (\beta_{h,0,0,j} + \beta_{h,h,1,j} p_{d-1,h} + \beta_{h,24,1,j} p_{d-1,24}) \text{DoW}_d^j \right]}_{\text{Asteko egunaren efektuak}} \\
 & + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,hpj,i,0} P J_{d-i,h}}_{\text{Salto positiboak}} + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,hnj,i,0} N J_{d-i,h}}_{\text{Salto negatiboak}} + \epsilon_{d,h} \tag{3.2}
 \end{aligned}$$

non  $PJ_{d,h}$  fikziozko aldagai bat den, 1 balioa hartzen duena salto esanguratsu positibo bat baldin badago  $d$  eguneko  $h$  orduan eta 0 bestela. Era berean,  $NJ_{d,h}$  fikziozko aldagaiak 1 balioa hartuko du salto esanguratsu negatibo bat baldin badago  $d$  eguneko  $h$  orduan eta 0 bestela. ARX-J ereduak banaketako isatsetan prezioen joera egokiago batzea espero da.

Azkenik, proposatutako azken eredua jauzi eta kosaltoak dituen ARX eredua da, ARX-J-CJ eredua hain zuzen ere. ARX-J-CJ eredua ondoko moduan adierazten da:

$$\begin{aligned}
p_{d,h} = & \underbrace{\beta_{h,0,0,0}}_{\text{Konstantea}} + \underbrace{\sum_{s=1}^{24} \sum_{i=1}^8 \beta_{h,s,i,0} p_{d-i,s}}_{\text{Efektu autorregresiboak}} + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,\min,i,0} p_{d-i,\min} + \sum_{i=1}^8 \beta_{h,\max,i,0} p_{d-i,\max}}_{\text{Efektu ez-linealak}} \\
& + \underbrace{\sum_{j=1}^7 \left[ (\beta_{h,0,0,j} + \beta_{h,h,1,j} p_{d-1,h} + \beta_{h,24,1,j} p_{d-1,24}) \text{DoW}_d^j \right]}_{\text{Asteko egunaren efektuak}} \\
& + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,hpj,i,0} P J_{d-i,h}}_{\text{Salto positiboak}} + \underbrace{\sum_{i=1}^8 \beta_{h,hnj,i,0} N J_{d-i,h}}_{\text{Salto negatiboak}} + \underbrace{\beta_{h,0,1,0} C J_{d-1}}_{\text{Kosaltoak}} + \epsilon_{d,h} \tag{3.3}
\end{aligned}$$

non  $CJ_d$  fikziozko aldagai bat den, bat balioa hartzen duena  $d$  egunean kosalto esanguratsu bat baldin badago eta 0 bestela. Garrantzitsua da ohartzea  $d$  eguneko ordu guztietarako  $CJ_d$  aldagai berdina dela. ARX-J-CJ ereduan kosaltoen bidez orduen arteko jauzien korrelazioa aintzat hartzen da. (3.3) ereduan egun berean ordu desberdinetan hautematen diren jauziak hartzen dira kosaltotzat. ARX-J-CJ ereduak korrelazioa ez du soilik zeharkako efektuen bidez kontuan hartzen, kosalto aldagaiaren bidez isatsetako korrelazioa ere aintzat hartzen du.

### 3.2.3 Saltoen identifikazioa

Saltoen identifikazioa LM testaren bidez egiten da. Testaren helburua egun eta ordu jakin batean salto esanguratsuak egiaztatzea da. Jauzien identifikazioa estimatutako ARX ereduaren hondarrei aplikatzen zaie urtarokotasunik ez duen denbora-serie bat izan dadin, ARX ereduak batez-besteko prezioen joera egoki estimatzen baitu. Jauzien identifikazioa prezioetan zuzenean egingo balitz, prezio oso altu edo baxu bat jauzi esanguratsu bezala antzematea gerta daiteke urtarokotasun efektu huts bat denean. Testaren atzean dagoen ideia behaketa normalizatuaren tamaina atalase batekin alderatzea da jauzi esanguratsu bat gertatu den edo ez ebaluatzeko.

LM jauzi-testa eraikitzeke lehen urratsa tokiko aldagarritasuna estimatzeko  $K$  leiho tamaina aukeratzea da. Lee eta Mykland (2007)-ek urteko behaketa kopuruaren erro karratua proposatzen dute aukera optimo gisa<sup>3</sup>. Kapitulu honetan, eguneko ordu bakoitza banan-banan aztertzen denez, maiztasuna egunerokoa da, ondorioz,  $K = 20 \approx \sqrt{365}$ .

Leiho luzera optimoa aukeratu ondoren,  $d$  eguneko eta  $h$  orduko tokiko aldagarritasuna honela kalkulatu da:

$$\widehat{\sigma}_{d,h}^2 = \frac{1}{K-2} \sum_{j=d-K+2}^{d-1} |z_{j,h}| |z_{j-1,h}|,$$

non  $z_{j,h}$  estimatutako ARX ereduaren  $j$  eguneko eta  $h$  orduko errorea den. Ondorioz,  $\epsilon_{d,h} = \frac{z_{d,h}}{\widehat{\sigma}_{d,h}}$  da normalizatutako errorea. Hondar estandarizatua Lee eta Mykland (2007)-ek proposatutako

<sup>3</sup> Lee eta Mykland (2007) jarraituz  $K$ -k, eguneroko maiztasuna izan ez gero,  $\sqrt{365}$  eta 365 artean egon behar du. Egileek minimoa hartzea gomendatzen dute.

bi konstanterekin zuzentzen da. Azkenik, zuzendutako normalizatutako hondarrak atalase balioarekin alderatzen dira. Hori dela eta,  $d$  eguneko  $h$  orduan salto esanguratsu bat hautematen da baldin eta

$$\frac{|\epsilon_{d,h}| - C_d}{S_d} > \xi \text{ betetzen bada,}$$

non

$$C_d = \frac{\sqrt{2 \log D}}{\sqrt{2/\pi}} - \frac{\log \pi + \log(\log D)}{2\sqrt{2/\pi}\sqrt{2 \log D}} \text{ eta } S_d = \frac{1}{\sqrt{2/\pi}\sqrt{2 \log D}},$$

$D$  behaketa kopurua diren eta  $\frac{|\epsilon_{d,h}| - C_d}{S_d}$  estatistikoak banaketa esponentzial bikoitza jarraitzen duen:  $P(\xi \leq x) = \exp(-\exp(-x))$ . Kapitulu honetan ezarritako saltoen esanguratasun maila %10-ekoa da. Ondorioz,  $\exp(-\exp(-x)) = 0.90$  da eta atalase balioa  $\xi = -\log(-\log(0.9)) = 2.25$ .

Normalean, saltoak hautemateko prozedura iterazio bakarrean aplikatzen da. Hala ere, kapitulu honetan jauziak hautemateko prozedura iteratiboa jarraitzen da, elkarren ondoan dauden jauziek bigarren jauziaren identifikazioan eragin dezakeelako. Hori dela eta, iterazio bakoitzean hautemandako jauziak  $K$  aurreko behaketen batez-bestekoan ezartzen dira eta jauzi-testa berriro aplikatzen da, jauzi gehiago ez hauteman arte edo bost iterazio bete arte.

### 3.2.4 Kosaltoen identifikazioa

Lan honek Gilder et al. (2014)-ek proposatutako planteamendua jarraitzen du egun bereko ordu desberdinetan zehar dauden kosaltoak hautemateko<sup>4</sup>. Beraz,  $d$  eguna kosalto-egun bezala sailkatzen da gutxienez eguneko bi ordutan saltoa hautematen bada. Hau da, baldin eta

$$\sum_{h=1}^{24} J_{d,h} \geq 2 \text{ betetzen bada,}$$

$d$  egunean kosalto esanguratsu bat dago,  $CJ_d = 1$ . Baldin eta  $d$  egunean eta  $h$  orduan salto esanguratsu bat hautematen bada  $J_{d,h} = 1$  betetzen da, bestela  $J_{d,h} = 0$ .

### 3.2.5 Estimazioa

(3.1), (3.2) eta (3.3) ereduak Zou eta Hastie (2005)-ek proposatutako sare elastikoaren estimatzailearen bidez kalkulatu dira. Sare elastikoaren estimatzailea OLS-aren antzerakoa da, baina OLS estimatzaileari zigor koadratiko eta linealak gehitzen zaizkio. OLS-k estimatzeko parametro kopurua handia denean, ez du ondo lan egiten. Beraz, murrizte propietatea duen estimatzaile bat behar da, hau da, aldagai hautaketa propietatea duen estimatzaile bat. Uniejewski et al. (2016)-ek murrizte propietatea duten hainbat estimatzaile aplikatzen dizkie elektrizitate prezioen aurreikuspen erduei eta sare elastikoa estimatzaile onena dela

<sup>4</sup>Egileek kosaltoak hautemateko bi modu desberdin proposatzen dituzte. Hala ere, bideetako baterako egun-arteak ezinbestekoak dira, beraz, ezin da eguneroko maiztasuna duten behaketetan aplikatu. Horregatik, kapitulu honetan metodo bakarra azaltzen da.

ondorioztatzen dute.

(3.1), (3.2) eta (3.3) erregresio erduetan estimazioa burutzeko  $D$  luzerako leiho mugikor bat aukeratzen da. Leiho bakoitzaren luzera prezioen propietateak egoki gordetzeko bestekoa izan behar da, baina ezin da luzeegia izan aldagai azaltzaileen efektua denboran zehar aldatu egin baitaiteke. Bektore azaldua  $\mathbb{P}_h = (p_{1,h}, \dots, p_{D,h})'$  eta erregresio matrizea  $\mathbb{X}_h = (\mathbf{X}'_{1,h}, \dots, \mathbf{X}'_{D,h})'$  dira, non  $h$ -k eguneko orduari egiten dion erreferentzia. Sare elastikoaren estimatzailea definitzeko ezinbestekoa da OLS problema eskalatua edukitzea. Horrenbestez,  $\tilde{\mathbb{P}}_h = (\tilde{p}_{1,h}, \dots, \tilde{p}_{D,h})'$  eta  $\tilde{\mathbb{X}}_h = (\tilde{\mathbf{X}}'_{1,h}, \dots, \tilde{\mathbf{X}}'_{D,h})'$  erregresio matrize eskalatua eta bektore azaldu eskalatua dira, hurrenez hurren.  $\tilde{\mathbb{P}}_h$  eta  $\tilde{\mathbb{X}}_h$  eskalatzeko aldagai bakoitzaren batez-bestekoak 0 izan behar du eta desbiderazio estandarrek 1.

Sare elastikoaren estimatzailea ondorengo optimizazio problema ebatziz estimatzen da:

$$\hat{\tilde{\boldsymbol{\beta}}}_h = \arg \min_{\boldsymbol{\beta} \in \mathbb{R}^L} \left[ \sum_{d=1}^D (\tilde{p}_{d,h} - \tilde{\mathbf{X}}_{d,h} \boldsymbol{\beta})^2 + \lambda \left( \frac{1-\alpha}{2} \sum_{i=1}^L \beta_{i,h}^2 + \alpha \sum_{i=1}^L |\beta_{i,h}| \right) \right], \quad (3.4)$$

non  $\sum_{d=1}^D (\tilde{p}_{d,h} - \tilde{\mathbf{X}}_{d,h} \boldsymbol{\beta})^2$  OLS-aren estimazio terminoa eta  $L$  estimatu beharreko parametro kopurua diren. Bien bitartean,  $\lambda$  eta  $\alpha$  zigorra karakterizatzen duten doikuntza parametroak dira, zigor terminoa  $= \lambda \left( \frac{1-\alpha}{2} \sum_{i=1}^L \beta_{i,h}^2 + \alpha \sum_{i=1}^L |\beta_{i,h}| \right)$  izanik. Zigor terminoan baieztatu daitekeenez, optimizazio problemak 0 baino handiagoak diren parametroek zigortu egiten ditu eta horregatik, sare elastikoaren estimatzaileak  $\lambda$  eta  $\alpha$ -ren arabera murrizketa propietatea du. (3.4) estimazio problema ebatziz parametro guztiak estimatuta daudenean, sare elastikoaren eskalatu gabeko  $\hat{\tilde{\boldsymbol{\beta}}}_h$  estimazioak lortzeko, estimatutako  $\hat{\tilde{\boldsymbol{\beta}}}_h$  parametroak berriro eskalatu behar dira.

$\alpha = 1$  denean, sare elastikoaren estimatzailea Tibshirani (1996)-k proposatutako Lasso estimatzailearen baliokidea da,  $\alpha = 0$  denean, ordea, Hoerl eta Kennard (1970)-ek proposatutako Gain zigorraren berdina da. Lasso estimatzaileak murrizketa propietatea du. Horrek esan nahi du,  $\lambda$ -ren balioaren arabera, estimatzaileak informazio garrantzitsurik gehitzen ez duten aldagaiei 0 parametroa esleitzen diela, aldagai garrantzitsuenak soilik mantenduz. Murrizketa propietateak aldagai ugari sartzeari ahalbidetzen du. Izan ere,  $\lambda$  balioaren arabera parametro gehiago edo gutxiago sartzeari ahalbidetzen du.  $\lambda$ -ren balio handietarako, batetik gertu dauden balioetarako, erdua estimatzean oso parametro gutxi hartzen dira aintzat. Aitzitik,  $\lambda$ -ren balio txikien kasuan, zerotik gertu dauden balioak, parametro gehienak erduan sartzeari ahalbidetzen du. Sare elastikoaren metodoa Gain elementu batzuekin nahastutako Lasso murrizketa bezala ikus daiteke. Lassoren murrizketa sare elastikoa estimatzailearen zati bat denez, sare elastikoak ere murrizketa propietatea du  $\lambda > 0$  denean.

Normalean, Lassoren estimazioa egiterakoan  $\lambda$  doikuntza parametro optimoa aukeratzeko balioztapen-gurutzatua (CV) aplikatzen da. Hebiri eta Lederer (2013)-ek doikuntza parametroa hautatzerakoan behaketa kopurua, parametro kopurua, aldagarritasuna eta korrelazioa kontuan hartzen direla argudiatzen dute. Uniejewski et al. (2016)-ek elektrizitatearen prezioen testuinguruan sare elastikoa eta lasso estimatzaileak aplikatu ondoren (besteak beste), sare elastikoaren estimatzaileak prezioak lasso estimatzaileak baino hobeto aurreikusten dituela ondorioztatzen dute. Uniejewski et al. (2016)-ek iradokitzen dute  $\alpha = 0.5$  aukera ezin hobea dela

elektrizitatearen prezioen aurreikuspenetan aplikatzeko. Beraz,  $\alpha = 0.5$  balioa erabiltzen dugu.  $\lambda$ -ren balioa 10-blokeko-CV-ren bidez hautatzen da. Asteko urtarokotasunari eusteko blokeen luzera 7-koa da. Blokeko-CV-a denbora serieen analisisian oso erabilia da, Racine (2000)-en adibidez.

### 3.2.6 Aurreikuspenak

(3.1), (3.2) eta (3.3) ereduetan estimatzen diren leiho mugikor bakoitzeko hurrengo  $H$  egunetako prezioak aurreikusten dira. Ondoren, leihoa urrats bat aurreratzen da eta estimazio eta aurreikuspen prozesua berriro errepikatzen da. Guztira luzera berdineko  $N$  leiho desberdin daude.

MAE eta RMSE irizpideek aurreikuspenen errendimendua neurtzen dute. Bi irizpideek aurreikuspenen errendimendua  $N$  leiho mugikorretan zehar eta  $H$  horizontetako bakoitza bereizita ebaluatzen dute. MAE irizpidea medianaren aurreikuspenetarako da egokiena eta beraz, jauziek gutxiago eragiten diote. RMSE irizpidea aldiz, batez-bestekoaren aurreikuspenetarako da egokiena. Bi irizpideak oso erabiliak dira elektrizitate merkatuen literaturan, esaterako Uniejewski et al. (2016), Ziel eta Weron (2018), Uniejewski et al. (2018), Chan et al. (2008) eta Ciarreta et al. (2017)-n.

MAE irizpidea  $k$  horizonterako eta  $h$  ordurako honela adierazten da:

$$MAE_{h,k} = \frac{1}{N} \sum_{i=1}^N |p_{i,h,k} - \hat{p}_{i,h,k}|,$$

non  $p_{i,h,k}$  eta  $\hat{p}_{i,h,k}$   $i$  egunerako,  $h$  ordurako eta  $k$  horizonterako behatutako eta aurreikusitako prezioak diren, hurrenez hurren. Ondorioz,  $k$  horizonterako eguneko ordu guztietan batera neurtutako MAE-a honela kalkulatzen da:

$$MAE_k = \frac{1}{24N} \sum_{h=1}^{24} \sum_{i=1}^N |p_{i,h,k} - \hat{p}_{i,h,k}|.$$

Bestalde,  $h$  ordurako eta  $k$  horizonterako RMSE irizpidea honela adierazten da:

$$RMSE_{h,k} = \sqrt{\frac{1}{N} \sum_{i=1}^N (p_{i,h,k} - \hat{p}_{i,h,k})^2},$$

non aurreko notazioa jarraitzen den. Analogikoki,  $k$  horizonterako eguneko ordu guztietan batera neurtutako RMSE-a honela kalkulatzen da:

$$RMSE_k = \sqrt{\frac{1}{24N} \sum_{h=1}^{24} \sum_{i=1}^N (p_{i,h,k} - \hat{p}_{i,h,k})^2}.$$

Azkenik, bikoteka ereduaren aurreikuspen-errendimenduaren arteko aldea esanguratsua den ala ez konparatzeko DM testa aplikatzen da. Horretarako, galera funtzioak definitu behar dira

eta aurretik aipatutako galera funtzioekin jarraituz errore absolutu eta karratu galera funtzioak erabiltzen dira.  $\mathbb{A}$  eta  $\mathbb{B}$  eredu desberdinen arteko galera diferentziala  $d$  egunerako,  $h$  ordurako eta  $k$  horizonterako  $\delta_{h,d,k,\mathbb{A},\mathbb{B}} = L_{h,d,k,\mathbb{A}} - L_{h,d,k,\mathbb{B}}$  bezala definitzen da. Non  $L_{h,d,k,\mathbb{A}}$   $d$  eguneko,  $h$  orduko eta  $k$  horizonteko  $\mathbb{A}$  ereduaren galera funtzioa den eta  $L_{h,d,k,\mathbb{B}}$   $d$  eguneko,  $h$  orduko eta  $k$  horizonteko  $\mathbb{B}$  ereduaren galera funtzioa den. DM testa  $h$  ordurako eta  $k$  horizonterako aplikatzeko hurrengo normalizatutako galera diferentziala kalkulatzen da:

$$\frac{\tilde{\delta}_{h,k,\mathbb{A},\mathbb{B}}}{\sigma_{\tilde{\delta}_{h,k,\mathbb{A},\mathbb{B}}}} \sim \mathcal{N}(0, 1),$$

non  $\tilde{\delta}_{\mathbb{A},\mathbb{B}} = \frac{1}{N} \sum_{i=1}^N \delta_{h,i,k,\mathbb{A},\mathbb{B}}$  eta  $\sigma_{\tilde{\delta}_{\mathbb{A},\mathbb{B}}}$  errore estandarra diren. Hipotesi nulua  $H_0 : \tilde{\delta}_{\mathbb{A},\mathbb{B}} = 0$  da, hau da,  $\mathbb{A}$  eta  $\mathbb{B}$  ereduaren artean ez dagoela desberdintasun esanguratsurik. Hipotesi alternatiboa  $\mathbb{A}$  eredia  $\mathbb{B}$  eredia baino esanguratsuki hobea dela da. Eremu kritikoa  $\frac{\tilde{\delta}_{h,k,\mathbb{A},\mathbb{B}}}{\sigma_{\tilde{\delta}_{h,k,\mathbb{A},\mathbb{B}}}}$  estatistikoa balio kritikoa baino txikiagoa denean ezartzen da.

Ordu guztiak batera kontuan hartuz bi ereduaren arteko aurreikuspen errendimendua alderatzeko, galera-diferentziala  $\delta_{d,k,\mathbb{A},\mathbb{B}} = \sum_{h=1}^{24} L_{h,d,k,\mathbb{A}} - \sum_{h=1}^{24} L_{h,d,k,\mathbb{B}}$  bezala definitzen da. Testaren estatistikoa goian bezala kalkulatuta dago baina galera-diferentzial berria erabiliz<sup>5</sup>.

### 3.3 Datuen deskribapena

Kapitulu honetan erabiltzen diren datuak Alemania eta Austriako eguneroko merkatuko argindar prezioak dira. EPEX energia trukeen merkatuan likidezia handiena izan zuen merkatua Alemania eta Austriako eguneroko merkatua izan zen. Datuak 2014ko urtarrilaren 1ean hasten dira eta 2018ko irailaren 30ean amaitzen dira, guztira, 1727 egun daude. 2018ko irailaren 30a alemaniar-austriar eguneroko merkatua zabaldu zen azken eguna izan zen<sup>6</sup>.


Arestian aipatu bezala, datuak eguneko ordu bakoitzari dagozkion 24 denbora-serieetan banatzen dira. Estimazio leiho bakoitzaren luzera  $D = 730$  egunekoa (2 urte) da. Lehen leiho mugikorra 2014ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2016ko abenduaren 31n bukatzen da.  $H = 7$  egun (horizonte) aurreikusten dira leiho bakoitzean eta  $N = 997$  leiho mugikor desberdin estimatzen dira.

3.1 Irudiak eguneko 4. orduko (3:00etatik 4:00etara) eta 19. orduko (18:00etatik 19:00etara) prezioak irudikatzen ditu, hurrenez hurren. Ordu bakoitzari dagokion histograma ere eskuragarri dago. Bi ordu horietako prezioak soilik erakusteko arrazoia 4. ordua bailara ordua dela eta 19. ordua gailur ordua dela da. Lehen begiratu batean ikus daiteke 19. orduko prezioen aldagarritasuna 4. ordukoena baino handiagoa dela, eta batez-bestekoak joera berdina duela. 4. orduan batez ere jauzi negatiboak ikusi daitezke eta 19. orduan, bien bitartean, bi zeinuak dituzten jauziak egon daitezke. Histogramei dagokienez, prezioen banaketan asimetria negatibo nabaria antzeman daiteke 4. orduan eta 19. orduan, aldiz, asimetria positiboa dago prezioen

<sup>5</sup>DM aplikatzeko behar den suposizio bakarra galera-diferentzialaren kobariantza egonkorra izatea da. DM testari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Diebold eta Mariano (2002) eta Diebold (2015).

<sup>6</sup>Data horren ondoren, Austriako eguneroko merkatua banatu egin zuten eta Luxenburgoko elektrizitate merkatua Alemaniako merkatura batu zen.

Irudia 3.1: 4. eta 19. orduen prezio serieak eta histogramak.




banaketan. Gainera, histogramek prezioen banaketen isatsetan egon daitezkeen saltoak islatzen dituzte.


3.2 Irudian 3.1 Irudiko grafiko berdinar agertzen dira, baina prezioak N-PIT eraldaketaren bitartez transformatuta daude, 3.2.1 azpiatalean azaltzen den moduan. Eraldaketa honek jatorrizko datuak normalki banatutako datuetan bihurtzen ditu eta aurreikuspena egin ondoren, alderantzizko transformazioaren bitartez aurreikusitako prezioak berreskuratzen dira. 3.2 Irudiko histogramek erakusten dute bi orduetako serieak banaketa normaletatik gertu daudela. Eraldaketaren ondoren, orokorrean, 24 denbora-serieek dauzkate banaketa normaletik gertu dauden banaketak. Denbora-serie eraldatuetan isatsak meheagoak dira, beraz, LM testak jatorrizko prezioetan baino jauzi gutxiago antzematea espero da.

LM testaren arabera, jauzi nabarmenak daude 24 orduetan bai jatorrizko eta baita eraldatutako prezioetan ere. 3.3 Irudian 4. eta 19. orduetako estimatutako (3.1) ereduaren jatorrizko eta eraldatutako prezioen hondarrak irudikatzen dira. Adibide gisa azken leiho mugikorrek estimatutako ereduaren hondarrak agertzen dira eta LM testak atzemandako jauzi esanguratsuak zirkuluarekin markatzen dira. Orokorrean, jauzi kopurua jatorrizko prezioetatik eraldatutako prezioetara jaitsi egiten da. Hala ere, 19. orduan jauzi kopurua jatorrizko eta eraldatutako prezioetan berdina da. LM testak salto esanguratsuak antzematen ditu uneko behaketa aurreko behaketen desbideratze estandarra baino dezente handiagoa denean, eta gerta daiteke 19. orduko prezioen bolatilitate altuak jauzi esanguratsuak antzematea zailtzea. 2016 eta 2017 urteen amaieran eta 2017 eta 2018 urteen hasieran, akats terminoak nabarmen handitzen dira 19. orduan. Akats terminoen bolatilitatearen tokiko handitze honek zailtasun nabarmenak

Irudia 3.2: 4. eta 19. orduen eraldatutako prezio serieak eta histogramak.



Irudia 3.3: Azken leiho mugikorreko 4. eta 19. orduetako hondarrak hautemandako saltoekin.



gehitzen dizkio saltoen identifikazioari. Hala ere, saltoak iraunkortasun laburrekoak izan behar direnez baliteke 3.1 Irudian antzematen diren balio altu eta baxuak jauzi esanguratsuak ez izatea. Eraldatutako denbora- serieek banaketa ia normala jarraitu arren, jauziak eta kosaltoak hauteman daitezke 3.3 Irudian baieza daitekeen moduan. Ikus daiteke, orokorrean, jatorrizko eta eraldatutako prezioetan hautemandako salto esanguratsuak negatiboak direla.



### 3.4 Emaidza empirikoak

Arestian aipatu bezala, sare elastikoaren estimatzaileak murrizketa propietatea du. 3.1 eta 3.2 Taulek  $N$  leihuetan zehar ordu bakoitzeko aldagai bakoitza ARX-J-CJ ereduaren sartzen den aldien ehunekoa erakusten dute. (3.3) ereduko salto positibo, salto negatibo eta kosalto aldagaiak soilik agertzen dira, bestela aldagai kopurua handiegia izango litzateke. 3.1 Taulak jatorrizko prezioen emaitzak erakusten ditu, 3.2 Taulak aldiz, eraldatutako prezioenak. Espero zitekeen bezala, orokorrean, jauziekin erlazionatutako aldagaien garrantzia jatorrizko prezioetan eraldatutako prezioetan baino handiagoa da.

3.1 Taulan, orokorrean, salto negatiboen atzerapenak ereduaren sarriago sartzen direnez, salto negatiboen iraunkortasuna positiboena baino handiagoa dela baieztatu daiteke. Eguneko orduari dagokionez, espero bezala, jauzi positiboen garrantzia gailur orduetan (goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak bitartean) handia da, bailarako orduetan (0:00tik 8:00ak arte eta 20:00tik 24:00ak arte), aldiz, jauzi negatiboen garrantzia da azpimarragarriena.

CJ aldagaiari dagokionez, garrantzia aldatu egiten da eguneko orduaren arabera. Ehunekoen tarteak %7.72-tik %61.61-era doa. Balio baxuenak hautemandako kosaltoetan ordu horietako saltorik ez dagoenean ematen dira. Era berean, portzentajeak aldatu egin daitezke kosaltoak hautemateko erabilitako saltoak identifikatu diren orduen arabera.

3.2 Taulan, orokorrean, jauzi negatibo eta positiboen portzentajeak prezio eraldatuetan jatorrizko prezioetan baino txikiagoak direla ikus daiteke. Eraldatutako prezioen kasuan, jauzi positiboak gutxitan dira garrantzitsuak. 19. orduan eta orokorrean gailur orduetan, bolatilitatea altua dela eta, bai jauzi positiboak eta baita negatiboak ere, HAR-J-CJ ereduaren portzentaje altuagoan sartzen direla baieztatu daiteke.

Kosalto aldagaiari dagokionez, 3.2 Taulan oro har, eraldatutako prezioetan jatorrizko prezioetan baino probabilitate handiagoarekin sartzen dela ereduaren ikus daiteke. Gainera, kosalto aldagaia ereduaren sartutako portzentajeen tarteak %17.7 eta %75.43 artean dago, jatorrizko prezioen seriean baino ehuneko handiagoak izanik.

Laburbilduz, jauzi eta kosalto aldagaiak sarritan sartzen dira ARX-J-CJ ereduaren eta horrek, aldagaiek erduei informazio garrantzitsua gehitzen dietela iradokitzen du. Hori dela eta, espero da ARX-J eta ARX-J-CJ ereduaren aurreikuspenak ARX ereduaren aurreikuspenak gainditzea.

Eredu desberdinen aurreikuspen zehaztasuna MAE eta RMSE irizpideen bidez neurtzen da. Espero zitekeen bezala, eredu bakoitzaren zehaztasuna eguneko orduaren eta horizontearen arabera aldatzen da.

3.3 eta 3.4 Taulek 4. eta 19. orduetarako MAE irizpidearekiko eredu bakoitzaren aurreikuspen-errendimendua erakusten dute, hurrenez hurren. Bi prezio serieen (jatorrizkoa eta eraldatua) eta 7 horizonteen ( $H_1, \dots, H_7$ ) emaitzak daude ikusgai. 3.3 Taulak erakusten du eraldatutako prezioak erabiliz ARX ereduak gainontzeko ereduaren eta jatorrizko prezioa erabiltzen duten ereduaren aurreikuspenen zehaztasuna gainditzeko duela. N-PIT eraldaketak ARX-J eta ARX-J-CJ ereduarekin, ordea, ez du aurreikuspen zehatzik eskaintzen. Jatorrizko prezioen seriean sakonduz, jauziak eta kosaltoak sartzeak aurreikuspen zehatzagoak

Paula 3.1: Jatorrizko prezioetan aldagaia garrantzitsua den aldien ehunekoa.

Aldagaia	1Ordua	2Ordua	3Ordua	4Ordua	5Ordua	6Ordua	7Ordua	8Ordua	9Ordua	10Ordua	11Ordua	12Ordua	13Ordua	14Ordua	15Ordua	16Ordua	17Ordua	18Ordua	19Ordua	20Ordua	21Ordua	22Ordua	23Ordua	24Ordua
$PI_{d-1,a}$	43.63	64.19	46.84	46.24	28.08	42.43	41.12	31.29	10.73	47.44	64.79	19.96	16.15	32.10	47.24	51.65	71.61	62.79	62.59	60.28	46.94	16.15	3.01	0.50
$PI_{d-2,a}$	37.41	19.06	19.26	20.96	13.74	16.45	28.28	24.87	16.95	39.02	41.12	17.75	18.25	34.80	56.67	13.14	36.31	48.24	41.83	74.52	55.17	43.43	22.87	32.90
$PI_{d-3,a}$	29.65	17.35	19.16	25.68	17.95	15.85	56.67	43.43	27.88	49.75	31.80	8.63	3.51	24.87	30.99	24.67	4.21	44.13	62.09	44.93	64.19	73.62	52.96	33.80
$PI_{d-4,a}$	50.55	49.15	13.54	22.77	12.84	33.60	31.49	4.51	17.95	2.41	19.86	12.64	21.97	29.19	33.80	16.35	13.04	25.08	15.45	24.07	10.23	2.01	25.98	2.01
$PI_{d-5,a}$	47.54	36.81	34.00	46.54	25.78	54.46	37.71	21.26	9.53	2.71	5.12	23.37	3.61	11.84	17.15	10.63	53.66	73.23	27.08	4.51	6.02	0.10	0.80	0.80
$PI_{d-6,a}$	67.40	65.80	51.05	40.42	36.01	59.18	11.53	26.98	18.66	5.12	12.94	20.26	6.52	21.16	20.66	9.13	96.69	84.95	92.68	26.18	25.18	46.14	23.97	30.59
$PI_{d-7,a}$	70.21	36.41	36.21	24.77	32.30	35.21	20.16	33.90	61.99	80.74	76.03	34.40	18.96	52.76	50.75	21.66	21.56	31.59	33.60	45.34	52.46	73.12	29.59	7.12
$PI_{d-8,a}$	52.80	35.21	47.24	56.87	37.41	58.48	12.84	59.98	83.95	62.79	52.96	16.65	17.05	48.14	56.17	69.01	52.96	40.72	70.41	50.15	45.14	87.96	45.94	15.15
$NI_{d-1,a}$	48.24	51.15	78.13	80.04	70.91	62.89	42.43	47.14	24.07	39.32	51.45	82.55	70.71	97.79	97.79	92.98	88.97	38.52	13.14	30.19	66.20	62.49	6.72	41.12
$NI_{d-2,a}$	93.08	84.85	65.70	77.23	56.07	83.15	45.34	10.83	3.71	11.84	26.28	59.08	13.84	55.07	69.31	43.13	71.72	37.91	37.11	50.75	40.92	41.12	14.14	12.94
$NI_{d-3,a}$	47.94	55.27	63.30	63.99	46.24	69.71	41.12	10.53	4.01	11.84	5.62	53.16	6.42	10.43	10.43	28.59	8.22	51.05	5.52	25.08	20.56	37.21	64.99	90.67
$NI_{d-4,a}$	59.28	89.77	42.73	52.96	28.69	60.78	39.12	11.43	3.41	33.00	7.32	47.64	6.12	15.45	31.29	20.16	8.83	4.21	1.40	7.92	59.18	68.61	67.50	79.24
$NI_{d-5,a}$	39.02	73.62	73.42	68.51	58.07	20.36	22.87	7.02	4.81	4.31	25.68	43.73	34.10	52.16	52.96	35.81	16.85	23.37	5.32	22.47	32.50	4.31	7.92	4.31
$NI_{d-6,a}$	85.36	27.78	31.19	51.15	43.03	34.60	31.09	13.64	5.82	4.31	30.89	30.89	27.28	45.94	51.55	21.97	26.38	12.84	28.08	15.25	16.75	8.12	2.01	19.96
$NI_{d-7,a}$	49.35	48.45	57.67	79.54	51.35	84.25	29.39	37.81	34.80	58.38	60.78	57.57	14.34	47.74	48.55	53.66	68.41	7.12	13.14	10.23	15.85	42.23	17.15	31.19
$NI_{d-8,a}$	53.66	33.90	54.66	64.69	41.22	56.87	44.63	3.21	6.22	0.50	5.42	20.76	4.21	9.43	21.36	6.42	12.04	2.71	11.33	16.95	55.77	26.58	53.36	35.61
$CI_{d-1}$	49.35	49.55	57.57	53.86	43.23	44.73	30.59	12.74	7.72	20.86	15.95	52.46	27.98	30.09	33.90	30.29	41.42	44.33	52.36	32.40	32.20	61.69	29.69	34.00

Taula 3.2: Eraldatutako prezioetan aldagaia garrantzitsua den aldien ehunekoa.

Aldagaia	1Ordua	2Ordua	3Ordua	4Ordua	5Ordua	6Ordua	7Ordua	8Ordua	9Ordua	10Ordua	11Ordua	12Ordua	13Ordua	14Ordua	15Ordua	16Ordua	17Ordua	18Ordua	19Ordua	20Ordua	21Ordua	22Ordua	23Ordua	24Ordua
$PI_{d-1,a}$	28.08	30.99	19.66	35.11	26.28	15.35	50.55	29.09	39.42	22.07	33.20	32.10	64.09	50.55	37.91	47.24	42.83	50.25	42.73	0.70	0.40	6.62	8.53	1.10
$PI_{d-2,a}$	17.75	8.12	11.63	26.18	8.12	2.51	58.68	70.11	47.74	41.62	25.98	28.89	29.19	10.03	17.05	11.03	7.12	25.08	32.60	38.52	45.04	28.79	24.87	19.46
$PI_{d-3,a}$	22.47	8.02	6.82	5.02	5.92	2.01	70.21	44.33	40.62	38.31	14.14	24.87	9.83	15.65	15.75	18.05	82.55	40.52	3.71	47.54	48.14	46.84	60.78	8.73
$PI_{d-4,a}$	14.74	6.72	14.94	14.74	5.72	0.90	9.13	42.13	33.80	12.84	8.73	13.24	6.82	4.11	13.34	10.23	13.54	43.73	10.73	20.36	15.65	15.85	37.71	3.21
$PI_{d-5,a}$	24.27	13.44	7.22	10.73	3.91	1.60	47.54	55.27	26.18	7.72	26.28	15.35	11.74	24.87	2.71	0.90	35.61	42.63	50.45	2.21	0.00	0.60	2.41	0.50
$PI_{d-6,a}$	19.06	28.69	52.46	30.29	27.08	2.91	34.30	21.06	28.89	1.91	15.45	11.53	17.75	44.63	41.62	16.45	45.34	74.62	50.35	10.73	50.75	56.67	20.46	0.50
$PI_{d-7,a}$	66.40	12.54	28.89	23.77	16.95	9.03	33.70	37.31	9.83	1.60	34.70	52.86	52.86	31.70	21.46	9.43	5.42	58.68	31.59	19.76	28.89	18.46	22.47	0.70
$PI_{d-8,a}$	4.51	6.32	22.57	23.37	8.32	8.63	32.40	49.55	69.71	38.31	37.51	22.07	44.23	49.95	20.66	45.54	40.92	75.83	26.98	7.82	10.23	35.11	35.21	2.01
$NI_{d-1,a}$	23.27	71.82	77.03	85.66	62.39	41.52	50.15	39.72	38.31	37.51	53.36	65.60	60.98	67.40	66.40	59.18	67.70	57.87	50.15	56.17	68.81	81.34	47.44	37.61
$NI_{d-2,a}$	15.15	60.08	34.60	54.86	54.26	52.66	61.79	54.96	39.12	30.69	32.90	35.61	25.08	26.88	61.38	41.32	74.12	45.14	54.56	44.53	46.44	68.41	42.03	20.06
$NI_{d-3,a}$	21.36	47.14	31.80	71.01	70.61	25.38	25.38	87.76	67.00	26.98	12.44	45.94	32.10	47.64	36.51	56.27	15.85	42.83	7.62	18.66	31.70	20.46	75.63	83.55
$NI_{d-4,a}$	34.40	42.23	65.80	76.63	64.89	50.85	46.64	72.02	74.92	59.58	23.87	38.62	26.48	16.95	21.06	11.84	35.21	27.38	21.97	43.93	75.13	84.75	60.78	48.14
$NI_{d-5,a}$	34.20	44.23	54.56	71.21	69.41	51.65	31.80	19.26	38.21	34.00	33.30	62.39	65.90	75.43	49.85	64.39	66.20	17.25	3.41	16.45	25.08	13.14	4.71	32.40
$NI_{d-6,a}$	36.01	33.80	28.69	55.37	46.64	35.61	60.08	37.91	53.56	23.77	29.79	49.05	31.39	46.84	28.39	20.26	29.39	14.04	53.29	19.26	36.11	31.39	8.93	40.72
$NI_{d-7,a}$	26.08	51.35	50.05	41.93	65.10	49.85	38.21	67.80	51.25	74.52	36.51	41.42	52.76	69.31	66.50	53.56	68.71	41.62	59.26	21.56	30.49	24.17	11.84	8.32
$NI_{d-8,a}$	44.53	63.89	54.86	49.85	28.18	37.41	30.79	36.31	37.81	4.71	23.17	31.29	9.33	19.26	6.92	11.03	8.73	63.89	59.98	52.86	48.45	68.51	66.80	66.70
$CI_{d-1}$	17.05	18.66	21.66	50.25	75.43	34.40	37.01	47.14	52.26	53.66	36.11	30.32	45.04	58.78	57.57	53.26	62.89	70.71	62.49	47.94	53.96	52.26	49.95	31.39

Taula 3.3: 4. orduko MAE.

Eredua	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	5.466	9.403	10.267	10.778	10.178	10.299	10.851
	N-PIT	4.680	8.160	9.118	9.284	9.574	9.866	9.737
ARX-J	Jatorrizkoa	5.436	9.358	10.090	10.311	10.616	10.632	10.865
	N-PIT	9.274	11.473	11.883	12.435	12.307	12.315	12.150
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	5.434	9.339	10.203	10.327	10.830	10.944	10.624
	N-PIT	8.724	11.131	11.941	12.139	12.394	12.442	12.702

Taula 3.4: 19. orduko MAE.

Eredua	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	10.200	11.326	12.091	12.078	12.361	12.457	12.747
	N-PIT	10.010	11.318	11.336	11.979	12.015	12.778	12.242
ARX-J	Jatorrizkoa	10.222	11.052	11.835	12.215	11.782	12.914	12.907
	N-PIT	13.819	14.444	14.736	14.368	14.944	14.483	14.840
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	9.825	11.856	12.011	11.797	12.340	12.689	12.339
	N-PIT	13.800	14.313	14.770	14.249	14.726	14.368	14.629

egiten dituela ikusten da. Hala ere, jatorrizko prezioen ereduen arteko aldeak nahiko txikiak dira, gainera ARX-J eta ARX-J-CJ ereduen eta ARX ereduaren artean dagoen aurreikuspen-errendimenduaren aldea txikitu egiten da denbora-horizontea handitzen den heinean. Beherako errendimenduak jauzien luzerako efektua ARX-J eta ARX-J-CJ eredueta behar bezala biltzen ez dela adieraz dezake.

Bestalde, 3.4 Taulak erakusten du jatorrizko prezioak erabiliz hiru ereduen eta prezio transformatuak erabiliz ARX ereduaren arteko aurreikuspen-errendimenduen aldea oso txikia dela. Oro har, ikus daiteke MAE irizpidearen arabera 19. orduko erroreak 4. ordukoak baino handiagoak direla. Hori 19.orduko seriearen bolatilitatea altuagoa delako eta horrek, zehatz aurreikustea zaildu egiten duelako gerta daiteke.

Taula 3.5: H1 eta 4. ordurako DM estatistikoa (errore absolutu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		4.62 (>0.999)	0.20 (0.581)	-13.47 (<0.001)	0.21 (0.583)	-14.69 (<0.001)
	N-PIT	-4.62 (<0.001)		-4.34 (<0.001)	-15.47 (<0.001)	-4.39 (<0.001)	-18.07 (<0.001)
ARX-J	Jatorrizkoa	-0.20 (0.419)	4.34 (>0.999)		-13.52 (<0.001)	0.01 (0.504)	-14.53 (<0.001)
	N-PIT	13.47 (>0.999)	15.47 (>0.999)	13.52 (>0.999)		13.50 (>0.999)	2.21 (0.986)
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	-0.21 (0.417)	4.39 (>0.999)	-0.01 (0.496)	-13.50 (<0.001)		-14.63 (<0.001)
	N-PIT	14.69 (>0.999)	18.07 (>0.999)	14.53 (>0.999)	-2.21 (0.014)	14.63 (>0.999)	

Parentesi arteko balioa p-balioa da. Ezkerraldean, 3.2.6 azpiataleko notazioa jarraituz,  $\mathbb{A}$  eredua aurkitzen da eta gainean,  $\mathbb{B}$  eredua.

3.5 eta 3.6 Taulek errore absolutua galera funtziorako lehenengo horizontean (H1) 4. eta 19. orduen DM testaren emaitzak irudikatzen dituzte. 4. orduan N-PIT-rekin eraldatutako

Taula 3.6: H1 eta 19. ordurako DM estatistikoa (errore absolutu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		0.59 (0.721)	-0.08 (0.469)	-8.5 ( $<0.001$ )	1.34 (0.909)	-8.44 ( $<0.001$ )
	N-PIT	-0.59 (0.279)		-0.66 (0.255)	-8.51 ( $<0.001$ )	0.58 (0.719)	-8.18 ( $<0.001$ )
ARX-J	Jatorrizkoa	0.08 (0.531)	0.66 (0.745)		-8.41 ( $<0.001$ )	1.41 (0.921)	-8.17 ( $<0.001$ )
	N-PIT	8.5 ( $>0.999$ )	8.51 ( $>0.999$ )	8.41 ( $>0.999$ )		9.10 ( $>0.999$ )	0.04 (0.517)
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	-1.34 (0.091)	-0.58 (0.281)	-1.41 (0.079)	-9.10 ( $<0.001$ )		-8.79 ( $<0.001$ )
	N-PIT	8.44 ( $>0.999$ )	8.18 ( $>0.999$ )	8.17 ( $>0.999$ )	-0.04 (0.483)	8.79 ( $>0.999$ )	

Parentesi arteko balioa p-balioa da. Ezkerraldean, 3.2.6 azpiataleko notazioa jarraituz, A eredia aurkitzen da eta gainean, B eredia.

prezioak erabiliz ARX ereduak gainerako ereduak nabarmen gaintzen ditu, baita jatorrizko prezioak erabiliz hiru ereduak ere. Jatorrizko prezioen seriearekin ez da posible ereduaren arteko alde esanguratsurik nabarmentzea. Transformatutako prezioak erabiliz ARX-J eta ARX-J-CJ ereduak esanguratsuki eredu okerrenak dira.

Bestalde, 3.6 Taulan ikus daitekeen bezala, 19. orduan jatorrizko prezioen serieari erreparaturik, ARX-J-CJ ereduak nabarmen gaintzen ditu %10 esanguratasun mailarako gainontzeko bi ereduaren aurreikuspenak. MAE irizpidearen arabera, jatorrizko prezioak erabiliz 19. orduko prezioen aurreikuspenak egiteko jauzi eta kosaltoek informazio garrantzitsua gehitzen dutela ondoriozta daiteke. Jatorrizko prezioa erabiliz ARX-J-CJ ereduaren eta transformatutako prezioak erabiliz ARX ereduaren artean ez dago alde esanguratsurik. 3.6 Taularen arabera, eraldatutako prezioak erabiliz ARX-J eta ARX-J-CJ ereduak aurreikuspenetan maila kaskar berdintsua ematen dute.

Taula 3.7: MAE ordu guztietarako batera.

Eredua	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	8.168	10.431	11.120	11.213	11.181	11.314	11.699
	N-PIT	7.691	9.822	10.232	10.782	10.718	11.192	11.011
ARX-J	Jatorrizkoa	8.126	10.228	10.959	11.341	11.199	11.778	11.703
	N-PIT	9.421	10.972	11.311	11.551	11.769	11.466	11.722
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	8.139	10.554	10.912	11.411	11.481	11.825	11.558
	N-PIT	9.142	10.782	11.281	11.298	11.390	11.543	11.599

3.7 Taulak, MAE irizpidearen arabera ordu guztien batez-bestekoa hartuz aurreikuspen-errendimendua erakusten du. 3.8 Taulan lehenengo horizontetarako 24 orduak aintzat hartuz lortutako DM estatistikoa agertzen da. Taula hauen helburua ordu guztietarako baterako emaitzak edukitzea da, eta horretarako MAE irizpidea eta DM testa aplikatzen dira, 3.2.6 azpiatalean aipatu bezala. 3.7 Taulak eraldatutako prezioak erabiltzen dituen ARX ereduak aurreikuspen zehatzenak egiten dituela erakusten du eta 3.8 Taulak emaitza hori berresten du. Jatorrizko prezioei erreparaturik, ARX-J eta ARX-J-CJ ereduak lehen horizontean ARX ereduak baino zertxobait hobeto aurreikusten badute ere, zoritxarrez, DM probaren

Taula 3.8: H1 eta ordu guztietako baterako DM estatistikoa (errore absolutu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		3.12 (>0.999)	0.30 (0.619)	-7.75 (<0.001)	0.21 (0.584)	-6.17 (<0.001)
	N-PIT	-3.12 (<0.001)		-2.76 (0.003)	-11.25 (<0.001)	-2.93 (0.002)	-9.46 (<0.001)
ARX-J	Jatorrizkoa	-0.30 (0.381)	2.76 (0.997)		-7.65 (<0.001)	-0.10 (0.461)	-6.39 (<0.001)
	N-PIT	7.75 (>0.999)	11.25 (>0.999)	7.65 (>0.999)		7.61 (>0.999)	1.80 (0.964)
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	-0.21 (0.416)	2.93 (0.998)	0.10 (0.539)	-7.61 (<0.001)		-6.34 (<0.001)
	N-PIT	6.17 (>0.999)	9.46 (>0.999)	6.39 (>0.999)	-1.80 (0.036)	6.34 (>0.999)	

Parentesi arteko balioa p-balioa da. Ezkerraldean, 3.2.6 azpiataleko notazioa jarraituz, A eredia aurkitzen da eta gainean, B eredia.

arabera, hiru ereduaren arteko aldeak ez dira nabariak. Azken emaitza, N-PIT eraldaketa duten ARX-J eta ARX-J-CJ ereduak aurreikuspenetan duten maila kaskar berdintsua da.

Taula 3.9: 4. orduko RMSE.

Model	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	7.748	12.799	13.886	14.495	13.805	13.901	14.738
	N-PIT	6.957	11.974	13.102	13.155	13.740	13.983	13.685
ARX-J	Jatorrizkoa	7.595	12.736	13.609	14.142	14.354	14.512	14.643
	N-PIT	12.669	15.411	15.757	16.122	15.946	15.607	15.527
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	7.674	12.821	13.649	14.036	14.351	14.602	14.358
	N-PIT	10.364	13.751	15.094	15.290	15.536	15.562	16.077

Taula 3.10: 19. orduko RMSE.

Model	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	13.514	15.389	16.197	16.085	16.549	16.925	17.163
	N-PIT	14.513	16.332	16.090	16.858	17.109	18.024	17.130
ARX-J	Jatorrizkoa	13.792	14.825	15.847	16.545	15.927	17.159	17.152
	N-PIT	18.913	20.367	20.114	19.736	20.686	19.559	20.462
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	13.379	15.908	16.214	16.097	16.686	16.978	16.659
	N-PIT	19.237	19.434	20.480	20.141	20.472	19.858	20.077

3.9 eta 3.10 Taulek 4. eta 19. orduetako RMSE irizpidearekiko aurreikuspenen emaitzak erakusten dituzte, hurrenez hurren. Orokorrean, 4. orduan emaitzak MAE irizpidearekin lortutakoen antzekoak dira. Eraldatutako prezioak erabiliz ARX ereduak egiten ditu aurreikuspenik onenak eta jatorrizko prezioak erabiliz ereduaren artean ez dago aurreikuspen-errendimenduan alde handirik. 19. Orduan, aldiz, eraldatutako prezioak erabiliz ARX ereduaren aurreikuspen-errendimendua jatorrizko prezioak erabiltzen dituen ereduaren batek gainditzen du horizonte guztietan. Eraldatutako prezio seriea erabiliz ARX ereduaren errendimendu jaitsiera erlatiboa RMSE irizpideak jauzien eragin handiagoa jasaten duelako eman daiteke. RMSE irizpideari jaramon eginez, eta jatorrizko prezioen serieetan sakonduz, eredurik onena ARX-J-CJ da, baina alde txikiak daude hiru ereduaren artean. Azkenik, MAE

irizpidean bezala, N-PIT eraldaketak ARX-J eta ARX-J-CJ ereduakin nahiko emaitza kaskarrak lortzen ditu. Beste behin, errorea askoz handiagoa da 19. orduan 4. orduan baino.

Taula 3.11: H1 eta 4. ordurako DM estatistikoa (errore karratu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		1.74 (0.959)	0.86 (0.806)	-3.55 ( $<0.001$ )	0.41 (0.660)	-5.41 ( $<0.001$ )
	N-PIT	-1.74 (0.041)		-1.48 (0.069)	-3.67 ( $<0.001$ )	-1.70 (0.045)	-6.60 ( $<0.001$ )
ARX-J	Jatorrizkoa	-0.86 (0.194)	1.48 (0.931)		-3.59 ( $<0.001$ )	-0.45 (0.328)	-6.03 ( $<0.001$ )
	N-PIT	3.55 ( $>0.999$ )	3.67 ( $>0.999$ )	3.59 ( $>0.999$ )		3.55 ( $>0.999$ )	1.81 (0.965)
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	-0.41 (0.340)	1.70 (0.955)	0.45 (0.672)	-3.55 ( $<0.001$ )		-5.84 ( $<0.001$ )
	N-PIT	5.41 ( $>0.999$ )	6.60 ( $>0.999$ )	6.03 ( $>0.999$ )	-1.81 (0.035)	5.84 ( $>0.999$ )	

Parentesi arteko balioa p-balioa da. Ezkerraldean, 3.2.6 azpiataleko notazioa jarraituz, A eredu aurkitzen da eta gainean, B eredu.

Taula 3.12: H1 eta 19. ordurako DM estatistikoa (errore karratu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		-1.84 (0.033)	-0.75 (0.226)	-7.41 ( $<0.001$ )	0.4 (0.656)	-6.98 ( $<0.001$ )
	N-PIT	1.84 (0.967)		1.23 (0.890)	-5.64 ( $<0.001$ )	2.07 (0.981)	-5.42 ( $<0.001$ )
ARX-J	Jatorrizkoa	0.75 (0.774)	-1.23 (0.110)		-7.20 ( $<0.001$ )	1.05 (0.854)	-6.63 ( $<0.001$ )
	N-PIT	7.41 ( $>0.999$ )	5.64 ( $>0.999$ )	7.20 ( $>0.999$ )		7.21 ( $>0.999$ )	-0.41 (0.341)
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	-0.4 (0.344)	-2.07 (0.019)	-1.05 (0.146)	-7.21 ( $<0.001$ )		-6.75 ( $<0.001$ )
	N-PIT	6.98 ( $>0.999$ )	5.42 ( $>0.999$ )	6.63 ( $>0.999$ )	0.41 (0.659)	6.75 ( $>0.999$ )	

Parentesi arteko balioa p-balioa da. Ezkerraldean, 3.2.6 azpiataleko notazioa jarraituz, A eredu aurkitzen da eta gainean, B eredu.

3.11 eta 3.12 Taulek H1-n 4. eta 19. orduen DM testaren emaitzak irudikatzen dituzte, hurrenez hurren, errore karratua galera funtziorako. 3.11 Taulan eraldatutako prezioak erabiltzen dituen ARX ereduak, nabarmen gaintzen dituela gainerako ereduak jatorrizko eta eraldatutako prezioak erabiliz baieztatu daiteke. Hala ere, kasu honetan, esanguratasun maila %1-aren orde %5-ekoa da. MAE irizpidean bezala, ezin dira jatorrizko prezioak erabiliz hiru ereduak bereizi.

Bestalde, 3.12 Taulan, harrigarria bada ere, jatorrizko prezioak erabiliz hiru ereduak esanguratsuki gaintzen dute eraldatutako prezioak erabiliz ARX eredu. Jatorrizko prezioen seriea erabiltzen duten ereduaren artean DM testa ez da bereizteko gai. RMSE irizpideari erreparatu ere, N-PIT eraldaketak ARX-J eta ARX-J-CJ ereduak emaitza kaskarrak lortzen ditu.

3.13 Taulak ordu guztien batez-bestekoa hartuz aurreikuspen-errendimendua erakusten du RMSE irizpidearen arabera. 3.14 Taulan lehenengo horizonterako 24 orduak aintzat hartuz

Taula 3.13: MAE ordu guztietarako batera.

Model	Transf.	H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7
ARX	Jatorrizkoa	11.491	14.365	15.374	15.439	15.379	15.524	15.98
	N-PIT	11.496	14.397	14.783	15.345	15.605	16.140	15.848
ARX-J	Jatorrizkoa	11.628	14.019	15.060	15.604	15.352	16.152	16.118
	N-PIT	13.862	15.876	16.205	16.346	16.918	16.122	16.69
ARX-J-CJ	Jatorrizkoa	11.486	14.462	14.923	15.680	15.633	15.974	15.883
	N-PIT	13.055	15.041	15.863	16.008	16.104	16.297	16.358

Taula 3.14: H1 eta ordu guztietako baterako DM estatistikoa (errore karratu funtzioa).

		ARX		ARX-J		ARX-J-CJ	
		Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT	Jatorrizkoa	N-PIT
ARX	Jatorrizkoa		-0.02 (0.493)	-0.73 (0.232)	-6.11 ( $<0.001$ )	0.03 (0.512)	-5.26 ( $<0.001$ )
	N-PIT	0.02 (0.507)		-0.40 (0.344)	-5.87 ( $<0.001$ )	0.04 (0.515)	-4.77 ( $<0.001$ )
